2005eko maiatza

38. zenbakia

aikor!

tx[illegible]ko aldizkaria

Arantza Aurrekoetxea, EAJ–EA

Emakumeen txanda

Maite Aranburu, EHAK

Celtas Cortos – Gerrako ahaztuak – Sondika eta Loiuko jaiak – Apurtuarte futbol taldea

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorrizketan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza, Mari Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Juantxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Oihana Astobieta, Maripi Agirre, Zaloa Jaka, Mireia Sanz, Kepa Bilbao, Jose Luis Martinez, Bestorrene, J. Ortuzar, Goizeder Uria, Atotz Goikoetxea, Juan Luis Goikoetxea, Jagoba Zallo eta Alberto Martinez de la Cuadra.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Eusko Jaurlaritza
Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

diruz lagundutako aldizkaria

18 Gerrako ahaztuak

26 Apurtuarte futbol taldea

10 Bittor Galarza "Txanbi"

22 Sondika eta Loiuko jaiak


13 Abdelmajed Ghebboun

11 Celtas Cortos

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak **10**Bittor Galarza "Txanbi" **11**Gurean izan da... Celtas Cortos **12**Gazteen txokoa **13**Gaztea eta... Abdelmajed Ghebboun **14**Txorierritarrak Eusko Legebiltzarrean **18**Gerrako ahaztuak **22**Sondikako jaiak **24**Louiko jaiak **26**Apurtuarte futbol taldea **28**Osasuna **29**Teknologia **30**Musika **31**Txorierri ezagutu **32**Sukaldaritza **33**Denborapasa **34**Agenda

Gorputzaren gurtza. A ze komeriak!

ZALOA JAKA
(Kazetaria)

Udabarriak bazterrak harrotzen dauz. Alaiago, zoroago gagoz eguzkia urtetan danean. Ordua aldatzeko agintzen deuskue (zorionez!), egunak luzeagoak dira, eguraldia hobeagoa da, txoritxoak kantari eta danok pozarren! Nire ezagun batek beti esaten eustan urtaro hau heltzen zanean, danoi eragiten deuskula aldaketa honek, nahi edo nahi ez, eta, konturatu barik, odola berotzen jakula. Egia dala eta egia dala. Ziur inoan berak. Egia izango ete da ba! Sinisten hasia naz. Danoi eragiten ei deusku, antza, eta, batez be, emakumeoi. Udabarriagaz batera hasten da emakumearen gorputza findu eta liraindu nahi daben kanpaina publizitario kupidarik bakoak. Etenbakoak dira. Edonon aurkitzen dozuz. Eta azkenean, oharkabean, produktuok magia egin leikiela be sinistera heltzen zara. Zein ahulak eta asebetetzeko errezak garen gizakiok batzutan!

Bikini operazioa martxan dago dagoeneko. Hasi jaku festa! Emakume guztiak dantzan! Eskuartean daukat asteburuetako magazín horreetako bat, eta, bonbardeaketa hain bortitza izanik, orduan erabaki dot gai honetaz idaztea. Aldizkariaren azalean bertan, flash batean, titularrak, “txoke plana” egitera gonbidatzen zaitu. Bond neska baten gorputza euki gura dozula? Hementxe aurkituko dozuz gomendio hutsezinak. Hollywood-eko izarren dieta orriotan daukazu zeure eskura, honek ez dau hutsik egiten! Horrexek hitz emoten dauz aldizkariak azalean baina jarraitu be jarraitzen dau barrualdean. Pilula magikoak, melokotoiaren dieta, alkatxofarena, proteinaz osotutako dieta, biomanan prebiotic, bioslim, pomeslim eta hamaikatxo antidoto. Zerrendagaz jarraitu ezkero lar aspertuko neuskizue. Auskalo beste zenbat dagozan merkatuan, ez dot pentsatu nahi be! Dana dala, honeek jan-neurriak baino ez dira. Desioaren gorputza lortzeko, peelinga egiteko eta, zer gehiago, ba, nik zer dakit!, partxe antizelulitiko miresgarrien iragarkiak eta ariketa fisiko egokia egiteko iradokizunak be aurkitu geinkez edonon. Zokoan bezala, errez galdu zeintekez eskaintzaren aurrean.

“Gorputzaren gurtzatik gorputzaren esklabutzara aldea dago. Eta hori da egungo publizitate kanpaina bortitzek eragiten dabena”

Gorputza jagotea osasungarria da eta geure buruagaz hobeto sentitzea be eragiten dau. Gorputzaren gurtza zilegi da, baina, bizitzako esparru guztietan bezala, komeni da, dana, neurriz egitea. Gorputzaren gurtzatik gorputzaren esklabutzara, barriz, aldea dago. Eta hori da egungo publizitate kanpaina bortitzek eragiten dabena, zoritxarrez. Pilula magikoak zein egun santu osoan melokotoiak baino ez jateak ez dau mirariri egiten. Alderantziz, osasunari kalte egiten deutsie eta osasunak ez dau holakorik merezi.

Hobetu gurean, edo

JAGOBA ZALLO
(Itzultzailea-Interpretea)

Hainbeste aldatu da bizimodua gure herrietan aspaldiko urteetan. Ez da horren urrin geratzen baserria bizimoduaren ardatz zan garaia. Aspaldi amaitu zan hori. Hainbeste urte dira gure artean baserritik kanpokoa dala diru-iturririk handiena, bizimodua atarateko etxetik kanpo, inoren kontu edo norberaren kontu, lan egida.

Hoberako izango da, ez daukat zalantzarik. Baserriko familiaren etorkizuna ez da gehiago egongo eguraldi onaren edo txarraren pentzu, esnearen edo pentsuaren prezioaren pentzu eta abar luze baten pentzu. Orain aldagai makroekonomikoen pentzu gagoz, baina beste gizaki askoren moduan, gure inguruko beste herri guztien moduan. Guk geuk ez dogu aldagai makroekonomiko horreek kontrolatzerik, baina eguraldia bera be ez geunkan kontrolatzeko edo aurrikusteko modurik; beraz, antzera baten gagoz alde horretatik.

Baina zelan dagoz gure herritxoak. Orain lurra ez da nekazaritza-abeltzantzarako erabilten, edo oso gitxi erabilten da. Lurra oso garestia da. Beno, inoiz ez da merkea izan. Baina lurraren emonkortasuna urbanistikoa da huts-hutsean, edo pinuak sartzeko, gehien jota. Eta horren artean, etxeak eta lantegiak egiteko edo pinuak eta antzekoak sartzeko balio ez daben lurrak hortxe dagoz, sasiak janda.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Bizitza ederregia da makurturik emateko!

Pasadan hilabeteko aldizkarian agertutako artikulu batek gaztea izateak daukan esanahiaren inguruan pentsatzeko aukera eman dit. Haur izatetik nagusi izatera pasatzen garen fase horretan, badago gazteok garai baten edo bestean eskuratzen dugun ezaugarri bat: heldutasuna. Ardurak hartu, ikasteko eta ezagutzeko gogoak eduki, lagunak aukeratu, gustatzen ez zaizkizun gauzak aldatzen saiatu… fase honetan eta erabakitzen dugun arabera, gure bizitzak norabide konkretua hartzen duelarik.

Baina, askeak gara nahi duguna aukeratzeko? Batzuk baiezkoan egongo zarete. Sentitzen dut, baina…

Gaur egun, sistema kapitalistan oinarritutako jendarte ereduan bizi gara. Horren ondorioz, sistemak berak, bere biziraupena bermatzeko, pertsonak edo makinak sortuko ditu. Balore konkretu batzuen arabera antolatu du jendartea, beraiek markatutako norabidetik edo bidetik inoiz aterako ez diren robotak hesituko dituelarik: gizakiak, gu geu, hain zuzen ere.

Hala ere, bizi dugun errealitateaz kontziente izanik, badago zuk zeuk aukeratutako erabaki bat: artaldearen barruan egon edo elkartasunean eta duintasunean eraikitako jendarte eredu berri baten alde borrokatzeko kamiseta gorria jartzen duzu.

Kamiseta gorria jartzeak ondorio gogorrak eduki ditzake zuretzako eta zure inguruan bizi direnentzako, ezarritako ereduaren alde lanean dauden boteredunen etsaia bihurtzen zarelarik. Artaldearen ardi beltza bihurtzen zara eta, gainera, zure pentsatzeko erak zilegitasun guztia galtzen du. Baina badago, kamiseta gorria jartzen garen guztion artean, inoiz kenduko ez diguten sentimendu edo sentsazio bat: harrotasuna.

Bai, harro gaude! Gainera harrotasun horrek bizitza beste era batean ulertzeko parada ematen digu. Pentsatzen dugunarekin koherentziaz jokatu eta dagoena aldatzeko aukera ematen digu. Horretarako, antolatu eta gure gorritasuna gazte herrian zabaltzen saiatzen gara. Konpartitu, hausnartu, planteatu eta egin. Belauniko bizi baino nahiago dugu zutunik hil!

Beraz, aurreko hilabetean, “Agotek” esaten zuen bezala, zuk erabakitzen duzu non harrapatzen zaituen denborak. Gustatzen ez zaizuna aldatzeko kamiseta gorria jartzen duzu edo zure bizi osoa artaldearen barruan ematen duzu. Zuk zeuk erabaki!

“Ttakun”

Drogak analizatzeko aukera jaietan

Txorierriko Mankomunitateko Drogamenpekotasunen Prebentziorako Zerbitzuak Testing programa jarriko du martxan jaietan. Programa horren bidez, drogak aztertu, eta haien konposizioaren gaineko informazioa emango zaie kontsumitzaileei.

Zerbitzuaren ardura Ai Laket elkarteak hartu du eta maiatzaren 20an Zamudioko jaietan izan ziren. Datu guztiak ez dituzte oraindik bildu; hala ere, lehenengo balorazioa egin, eta pozik agertu dira, zerbitzura lagun asko hurbildu zirelako. Uztailaren 1ean, Loiuko jaietan egongo dira gaueko 12etatik goizaldeko 3ak bitartean.

Legez kontrako drogak hartzen dituztenei, kontsumitzen hasi nahi duten gazteei eta haien lagun taldeei zuzenduta dago Testing programa, baita informazio orokorra jaso nahi duten guztiei ere. Zerbitzuak drogei buruzko informazio objektiboa eta benetakoa eskaintzea du helburu, eta, horretarako, substantzia horien erabilerak sor ditzakeen kalteak ezagutaraziko dizkie gazteei. Halaber, kalte horiek nola murriztu eta droga izatearen edo trafikatzearen ondorio legalak azalduko zaizkie, besteak beste.

Drogamenpekotasun programak drogarik hartzen ez duten pertsonei egon dira zuzenduta orain arte, baina drogaren kontsumoa ezin da alde batera utzi eta horregatik, arriskuak murrizteko programak ere jarri dira abian. Testing zerbitzua dago horien artean, eta gazteei informazioa emateaz gainera, teknikariek zein adituek substantzia eta kontsumo-patroi berrien gaineko ezagupen handiagoa edukitzeko balio izango du.

Mireia Sanz,
Drogamenpekotasunen
Prebentziorako Teknikaria

Testua: Kepa Bilbao
Argazkia: J.L.Marttinez

Lauro ikastolako neskek Bizkaiko Futbol 7ko I. Liga irabazi dute.– Futbol 7ko I. Liga antolatu du aurten Bizkaiko Federakuntzak, eta Lauro ikastolako nesken taldea txapelduna izan da kimu kategorian, hamasei partidatatik hamabost irabazi ondoren. Azkenaurreko partida Artunduaga kiroldegian jokatu zuten, eta bertan 6-8 irabazi zioten Basauriko taldeari. Emaitza horrek eman zien garaipena.

Titulua eskuratuta, lasaiago hartu zuten apirilaren amaieran ikastolan egindako Ligako azken partida. Gainera, bertara batu zen jendetzaren artean luxuzko ikusleak ere izan zituzten: Iraia Iturregi, Arrate Orueta eta Uguzne Athleticeko emakumeen taldeko jokalariak, Izaskun Gaztelu talde bereko jokalari ohia eta Aitor Larrazabal.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako hamaika neskak osatzen dute Lauro ikastolako Futbol 7ko kimu taldea, eta haietariko lau txorierritarrak dira. Zorionak neskak!

Bizkargi Eguna.– Urtero legez, ehunka lagun igo ziren Bizkargi mendira maiatzaren 8an, 36ko gerran hildako gudariei omenaldia egiteko. Beste alde batetik, ongietorria ere egin zieten kaleratu berri diren preso batzuei, eta bertso saioa eskaini zuten Txiplas, Areitio, Lekue eta Enbeitia bertsolariek. Arrastian, Euskal Herriko presoen eta errefuxiatuen aldeko ekitaldia izan zen Larrabetzun, eta, haren ostean, erromeria, Irats taldearen eskutik.



Argazkia: J. Cortazar

Udako egitarau berezia antolatu du Sondikako Udalak

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra bitarterako hainbat ekitaldi antolatu ditu Sondikako Udalak bertako Kultur Etxean: kamisetak egiteko lantegiak, Mini-golfa, umore rallya, irteerak… Ekitaldiok 3 urtetik 7 urtera arteko umeei (Ludoteka I) eta 8urtetik 13 urtera arteko gaztetxoei (Ludoteka II) zuzenduta daude.

Beste alde batetik, Futbol kanpusa ere egingo dute Basozabal zelaian. Ikastaroak zati bi izango ditu –bata teorikoa eta bestea praktikoa-, eta 1992. eta 1995. urteen artean jaiotako umeei zuzenduta dago. Ekainaren 27an hasi eta uztailaren 8an amaituko da kanpusa. Azkenik, 8 urtetik 13 urtera arteko umeek Friaseko kanpaleku batera uztailaren 11tik 15era bitartean joateko aukera edukiko dute.

Ekintzetan parte hartzeko, ekainaren 6ra arte eman daiteke izena Kultur Etxeko balio anitzeko gelan.

“Los Grafitti de mama”, Lezearen azken lana

Nobela historikoa une batez alboratu eta *Los Grafitti de mama* liburua kaleratu berri du Toti Martinez de Lezea idazle larrabetzuarrak. Bere hamabosgarren lana da hori eta berrogeita hamar urtetik gorako etxekoandre baten bakarrizketa ironikoa aurkezten digu bertan. Liburua idazteko bere esperientzian zein senide eta lagunenean oinarritu da Lezea.

Pintura Lehiaketa Zamudion

Zamudioko Udalak III. Pintura Lehiaketa antolatu du ekainaren 19rako. Txapelketa Santo Tomas ermitan egingo da eta nahi duen edonork parte hartu ahal izango du bertan. Hamalau urtetik gorako kategorian hiru sari –1000€, 500€ eta 300€– eta accesit bat emango dira, eta eskolako materiala eta jolasak hamalau urtetik beherako kategorian. Txapelketaren arauak Kulturaren teknikariaren bulegoan eskura daitezke.

Euskal Herriko II. Graffiti lehiaketa

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak Euskal Herriko II. Graffiti lehiaketa antolatu du, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Getxoko Udalak lagunduta. Hamabost urtetik gorako gazte euskaldunek parte har dezakete bertan –bakarka zein taldeka- eta uztailaren 1a baino lehen bidali beharko dute graffitiaren bozetoa hurrengo helbide honetara: Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa, Arlozabal kalea, 8 bis-1C, 48220 Abadiño. Lan originalak aurkeztu beharko dira eta teknika eta gaia libreak izango dira.

Topaguneak jasoko dituen bozetoren artean hamar aukeratuko dira eta uztailaren 16an Getxon izango den jaialdian horman margotuko dituzte egileek. Horrezaz gainera, 1.200 euroko lau sari emango dira. Informazio gehiago eta lehiaketaren arauak eskuratzeko www.topagunea.org web orrira jo daiteke.

Partehartze eskasa Agenda 21eko foroetan.– Apirileko bigarren hamabostaldian, Tokiko Agenda 21eko herri foroak egin dira Txorierrin. Bertako aztergaiak izan dira etxebizitza, gizarte zerbitzuak, kirola, kultura eta euskara. Arduradunek AIKOR! aldizkariari aipatutakoaren arabera, parte hartzea eskasa izan da herririk gehienetan, "hala ere, foroetan parte hartu duen jendeak oso jarrera positiboa izan du, beti egon da lan egiteko prest eta eztabaidatzeko gogoarekin".

Datozen asteetan ere jarraituko dute Agenda 21eko foroekin, eta ekonomia, enplegua eta garraioa izango dituzte eztabaidagai.

Pertsona euskaldunak hartzeko kanpaina zabaldu du Mankomunitateak

Txorierriko Mankomunitateak *Berdinean eus - karaz* kanpaina jarri du abian, Leioako eta Erandioko udalekin batera. Kanpainak umezaintzaile, kirol eta aisialdiko begirale, aurkezle eta klase partikularrak emateko jende euskalduna hartzea du helburu. "Duela bizpahiru urte hasitako esperientzia da, baina Leioako eta Erandioko udalekin batera antolatzea erabaki dugu aurten, Txorierritik oso hurbil daudelako eta kanpoko lagunek bidalitako curriculum asko jaso ditugulako aurreko urteetan", azaldu zaio Aikor! aldizkariari Mankomunitateko Eus-kara Zerbitzutik.

Pertsona batek zerrenda batean edo gehiagotan eman dezake izena eta ahalik eta curriculum zehatzena agintzea ezinbestekoa da, ez baita inolako azterketarik edo probarik egingo. Interesatuek urte osoan zehar eman dezakete izena hurrengo helbide honetan: Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzua, Herriko plaza 3, Derio. Tel. 944540350. Nahi izanez gero, internet bidez ere egin daiteke inskripzioa: euskera@txorierri-mank.org.

Udalekuak Loiun

Uztailean umeentzako udalekuak izango dira Loiun, bertako udalak antolatuta. Udalekuok 6 urtetik 12 urtera bitarteko haurrei zuzenduta daude eta astelehenetik ostiralera bitartean egingo dira 10:15etik 13:15ak arte. Jolas tematikoak, irteerak, alezko apaingarriak egiteko tailerrak… Hainbat jardueraz gozatzeko aukera izango dute Loiuko umeek. Gainera, hamabostaldi batean izena emateko aukera emango da.

Beste alde batetik, Zugaztietan egonaldia ere antolatu dute uztailaren 11tik 15era bitartean. Egonaldia 13 urtetik 17 urtera bitarteko gazteei zuzenduta dago eta argazki tailerra, tirolina eta eskalada egiteko aukera eskainiko zaie bertan, besteak beste. Udalekuetan izena emateko epea maiatzaren 23tik 31era bitartean izango da.

Omenaldia egin diote Laiomendi dantza taldearen arduradunari

Aurten hamabost urte bete ditu Derioko Lainomendi dantza taldeak eta, San Isidro jaietan agerraldia eskainiko zutela aprobetxatuta, omenaldia egin zioten Txaro Martin taldearen arduradunari maiatzaren 14an. Txaro dantzak irakasten dabil taldea sortu zenetik eta bere lana eskertzeko lore sorta bat eta opari batzuk eman zizkioten taldekideek. Eta bertso batzuk ere eskaini zizkioten.

Sorpresaz beteriko eguna izan zen hura, izan ere Lainomendiko emakume nagusiak plazara irten eta Axuri beltza dantza egin zuten lehenengoz. Eta mutilek ere Kaxarranka dantzatu zuten estreinako aldiz. Horrezaz gainera, omenalditxo bat egin zitzaion Ixone Zubieta taldearen partaideari ere bai.

Gerra eta literatura Larrabetzun

Bizkargi eguna dela eta, Gerra eta literatura jardunaldiak antolatuko ditu Bizkargiko Bekoki Kulturalak. “Gerrak gure berbak zenbateraino zauritu edo desagertarazi zituen jakin nahian, espainolek erakutsitako historia oskarbitu nahian, amnesia oroitzapen bihurtu ez dakigun”.

Gerra umeei zelan kontatu azalduko du Iñaki Egañak maiatzaren 25ean eta Jose Mari Lopetegi bertsolariaren gainean arituko da Joxan Elosegi hilaren 26an. Ostean, bertso saioa izango da Jon Uria, Beñat Lekue eta Etxahun Lekueren eskutik.

Beste alde batetik, Edorta Jimenezek Robert Capa gerrako argazkilariaren biografia aurkeztuko du ekainaren 1ean eta “Agur Euzkadi” Lauaxetaren gaineko mahai-ingurua egingo da hilaren 2an. Hitzaldi guztiak Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean izango dira arratsaldeko 8etatik aurrera.

Kirolari ateak zabaltzeko eguna Sondikan

Ekainaren 5ean kirola gazteei hurbiltzeko hainbat ekitaldi izango dira Sondikan, bertako Udalak antolatuta. Horrela, bada, Goronda Beko kiroldegiak eta Artabe kiroldegiak ateak zabalduko dituzte jendearentzat goizez eta arratsaldez, 10:30etik 14:30ak arte eta 10:30etik 13:30ak arte, hurrenez hurren.

Arratsaldean, 16 urtera arteko gazteei zuzendutako jolasak egingo dira Ikurrinaren enparantzan: tunelak, zizareak, arrauna, txirrista… Eta 17 urtetik gorakoek soka-tira, dama erraldoiak eta speed ball izango dituzte Goiri Erdikoa plazan, besteak beste.

Euskal Tonbola Txorierrin

Kontseiluak Euskal Tonbola jarri du abian. Ekimen horrek euskara bultzatzeko proiektu berriak egiteko baliabideak lortzea du helburu eta Euskal Herria osoa zeharkatuko du herriz herri. Apirilaren 30ean Gipuz-koako Buruntza, Urola Be-hea eta Kostan hasi, eta laster izango da Txorierrin.

Euskal Tonbolako txartelak euro baten truke erosi ahalko dira tabernetan eta, sariarekin batera, euskararekiko konpromiso-mezu bat azalduko da txartelotan. Sarien artean MP3 irakurgailuak, kamera digitalak, DVD irakurgailuak eta bidaiak egongo dira, besteak beste. “Bilduko duen dirua euskararen normalizazioa lortzeko lanak betetzeko izango da”, azaldu du Iker Gomez de Segura Kontseiluko finantzaburuak.

Txorierri taldea lehena Euskal Herriko Harrizulatzaileen Txapelketan.– Zamudioko jaietan 13 zulo eta 2,5 cm egin ondoren, Euskal Herriko Harrizulatzaileen Txapelketaren rankingeko lehenengo postuan dago Txorierri taldea. Klasifikazioa horrela gelditu da: Gallarta 2. postuan; San Fuentes 3.ean; Zugaztieta 4.ean; Trapaga 5.ean; Sondika 6.ean; Galdames 7.ean; Aldaialde 8.ean; Urtuella 9.ean eta Errekatxo 10. postuan. Hurrengo proba ekainaren 26an, 13:00etan, izango da Sondikako jaietan.

Sasoiz plataformak LPP salatu du

Bilboko Metropoliko Lurralde Plan Partzialari (LPP) errekurtsoak aurkezteko epea 2004ko urtarrilean amaitu zen. Dokumentuaren tramitazioak aurrera segitu du eta Eusko Jaurlaritzaren oniritzia baino ez du behar lege bihurtzeko. Egoera horren aurrean, LPPk Lezamari ekarriko dizkion kalteak salatu ditu Sasoiz plataformak gutun baten bidez.

Plataformaren ustetan, ikuspuntu ekologiko zein soziologikotik, Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko metropolirako dituen proiektuetatik erraldoiena eta jasangaitzena Lezaman gauzatuko da, “eta dokumentua onartuz gero, Bilboko metropolia osatzen duten hogeita hamabost udalerrietatik kaltetuena izango gara, duda barik”.

Aretxalde auzoan, Torrelarragoititik Ugarterainoko zatian, 120 hektareako eremua lur industrialtzat kalifikatu da. “Gainera, BI 737 errepidearen eta Larrabetzuko errepide zaharraren artean dagoen hiruki formako lur arloa gehitu diote hasierako proiektuari”.

Testu berrituan azaltzen denaren arabera, Lezamara azkenean ez da ekarriko Merkabilbao, ezta Hiltegia ere, baina lur sail hori “garraiorako parke logistikoa” izateko eta “ekoizpen industrial”erako erabiliko da. “Horrek esan nahi du aparkaleku erraldoi bat egingo dela eta hari lotutako ekimen industrialek beharko dituzten eraikuntzak altxatuko direla. Ondorioz, —gaineratzen dute- herrian ku-tsadura eta beste kalte batzuk izango dira.

Testuari errekurtsoak jartzeko aukerarik egon ez arren, plataformak herritarrak gonbidatu ditu plana geldiarazi eta eraldatzeko dauden mekanismoak martxan jartzera, “gure herriaren etorkizuna kolokan dagoelako”.

Bittor Galarza “Txanbi”

“Erbestean inoiz ez zara guztiz integratzen”



Bittor Galarza “Txanbi” larrabetzuarra maiatzaren 6an irten zen kalera, espetxean hiru urte eman ondoren. Aurretik, 10 hilabetean egon zen preso, harik eta 1986an baldintzapeko askatasuna eman zioten arte. Handik urte eta erdira epaitu, eta sei urteko zigorra ezarri zioten. Venezuelara erbesteratu, eta Espainiara estraditatu zuten 2002an.

Venezuelara 1988an heldu zinen. Nola hasten da bizitza berria atzerrian?

Nahiz eta ezagutu ez, badakizu norbait dabilela hortik eta harengana jotzen duzu. Paperak, lana eta etxebizitza dituzu lehentasuntzat, eta prozesua geldiro doa, baina ezagunen eta haien ezagunen bitartez lortuz joaten zara.

Lehenengo urtea oso gogorra izan zen. Lagunen babesa izaten duzu hasieran, baina bakoitzak bere bizitzarekin jarraitzen du gero, eta zuk ere zeure lekua topatu behar duzu. Oso bakarrik sentitu naiz askotan, baina aurrera egiten da apur-apurka. Etxekoak ere zu bisitatzera etortzen dira…

Gizarte desberdin batera moldatu behar duzu…

Bai, eta integratu inoiz ez zara guztiz integratzen… Beno, nire kasuan ez, behintzat. Badakizulako bertan ez zarela betiko geldituko. Inoiz etxera bueltatzea duzulako helburu.

Burua etxean izaten da gehienetan?

Hasiera batean bai, egunero. Baina zeure gauzetan zentratuz zoaz denborak aurrera egin ahala, eta apur bat ahazten duzu… Beno, ahaztu ez, etxea ez delako inoiz ahazten.

“Itota sentitu naiz, baina egoera gainditzen ikasi beharko dut”

Zure estradizioa legez kanpokoa izan zen…

Agindu judiziala izan behar dela edo delitua egiten harrapatu behar zaituztela dio bertako konstituzioak. Eta nire kasuan ez zen egon ez bata ez bestea. Paperak faltsuak nituela erabili zuten aitzakiatzat, baina gezurra zen: nortasun-agiria hango atzerritarren zuzendaritzan nuen aterata, eta pasaportea kontsulatuan.

Presiorik Espainiako Gobernuaren aldetik?

Kontsulatuko funtzionario batek azaldu zidan PPk eskatu zuela Venezuelan zeuden zazpi kideren estradizioa martxan jartzeko. Haietariko bati buruzko informazioa emanez gero, aske geldituko nintzela. Ez nekien ezer eta ez nion ezer esan. Hori gezurra ala egia izan zen, ba, ez dakit. Beste aukera bat ere egon daiteke: ez zuten inor aurkitu eta, ni oso bizitza normala egiten nuenez, harrapatu egin ninduten, eta kito.

Erbestean egotea gogorra bada, askoz gogorragoa kartzelan…

Azken urte biak isolatuta eman ditut; 22 ordu egunero 4 x 3 m-ko zigor-gela batean, bakardadean. Eta gogorra da, nahiz eta familia hilero ikusi. Liburuak, gutunak, irratia eta telebista dira zure laguntasun bakarra… Eta etxekoekin gogoratzen zara, eurak ere oso txarto pasatzen dabiltzalako. Arlo politikoari ere erreparatzen diozu: nola egin hainbat arazori irtenbidea emateko, kaleko egoeraren gainean egiten duzu hausnarketa…

Ez nuen pentsatzen betetzeko faltan nuen kondenan: hurrengo bisita edo aurrez aurrekora ailegatzea nuen helburu, etapa horiek gainditzea, besterik ez.

Egoera latza da, eta horregatik erbestean zein kartzelan dauden txorierritarrak gogoratu nahi nituzke bereziki.

Hainbat urteren ostean, Larrabetzura bueltatu eta…

Flasha! Dena berria da: herria bera, jendea… Venezuelako funtzionamendua askoz lasaiagoa zen… Eta gizartearen baloreak ere aldatu egin direla nabaritu dut. Itota sentitu naiz batzuetan, baina egoera hori gainditzen ikasi beharko dut.

Eta Euskal Herriko egoera?

Onera aldatu dela esango nuke. Praktikan ikusi ez arren, orain hamar urte pentsaezinak ziren hainbat gauza bereganatu ditu gizarteak. Eta apurka-apurka aurrerantz goaz, bide onetik goaz.

Venezuelara bueltatzeko gogorik?

Bai, jende askori agur esan barik alde egin nuenean, batez ere.

Eta hemendik aurrera?

Orain familiarekin egotea da nire lehentasuna, gero gerokoak.

Oscar Garcia, Celtas Cortos musika taldearen kidea

“Diska berriak lehenengokoen antza izango du”

Jesus Cifuentes ´Cifu’ kantariak eta beste kide batzuek taldea utzita, Celtas Cortos taldearen formazio berria ezagutzeko aukera izan dugu Zamudioko jaietan. Eta, egia esanda, desberdina bezain ona izan zen emaitza. Gainera, luzaroan izango dugu Celtas, Oscar García taldearen sortzaileetako batek AIKOR! aldizkariari esan dion bezala, irailean disko berria kaleratzeko asmoa dute eta.

Testua: Gaizka Eguskiza

Celtas Cortos taldeak etapa berria hasi du

Taldearen izena gorabehera, edozein eratako musika egiten duzue. Zein nahiago?
Denetarik jotzen dugu, baina musika zeltan oinarrituta beti. Estilo asko uztartzen ditugu: ska, reggae, rock gogorra, flamenko, pop-rocka... Hori da Celtas Cortosen soinua, eta eroso sentitzen gara horrekin.

Inoiz joko ez zenuketen musika motarik?
Auskalo, baina ez dut neure burua ikusten orain modan dagoen raggeton hori edo bakalaoa egiten.

Hasiera batean musika-tresnak baino ez zenituzten jotzen, baina denboraren poderioz letra inkonformistak taldearen ikur bihurtu dituzue. Zer dela eta aldaketa hori?
Gauzak kontatzeko eta gori-gori dauden gaiak mahai gainean jartzeko grina. Dena dela, ez dugu alde musikal hori inoiz alboratu; are gehiago, gure kantek alde musikal itzela dute oraindik ere.

Zeintzuk dira gaur egungo gairik kezkagarrienak, zuen ustez?
Mundua aurrera ez doanez, gaiak berdinak dira, tamalez: ekologia, gizartearen arazoak... Adibidez, hurrengo diskoan —nahiz eta bete barik egon— badago haurren esplotazioa salatzen duen kanta gogor bat.

Italierarekin ausartu zarete, pentsatu al duzue inoiz beste hizkuntzaren batean abestea? Euskaraz?
Ez dugu ezer baztertzen. Euskadin bizi diren lagun eta familiaren bidez euskarazko kantak sarritan entzun, eta aitortu behar dut izugarri gustatzen zaidala.

Hainbat musikarik osatzen duzue taldea. Zelan antolatzen zarete?
Hasiera-hasieratik denon artean hartzen ditugu erabakiak. Horrek denbora gehiago eskatzen du, baina emaitzak zerikusi handiagoa dauka taldearen pentsaerarekin. Kide zaharrenek azken hitza dute, baina bakoitzak esaten duena errespetatu eta onartzen da. Izan ere, gure artean oso musikari onak daude eta proposamenak aberastasuna ekartzen diote taldeari.

Kide aldaketa asko izan duzue. Antonio Enrique kantaria da horietako bat. Zelan hautatu duzue?
Lagun batzuek proposatutakoen artean aukeratu genuen. Kanta batzuk abestu, eta Antuanekin —horrela deitzen diogu— gelditu ginen azkenean.

“Izugarri gustatzen zait euskaraz abesten entzutea”

Zelan egokitu da?
Ederto. Pausoa oso zaila eta garrantzitsua zen, eta ez dut uste hobea izango zen beste inor aurkitzeko gauza izango ginenik.

Nabaritu du aurreko kantaria eta taldearen irudia ordezkatzeko presioa?
Presioa egon, badago, Jesusen ahotsa oso pertsonala baitzen eta karisma handia baitzeukan, baina ondo eutsi dio presio horri.

Cifurekin batera, Carlos Sotok eta Jose Sendinok ere utzi zuten taldea. Zelan hartu duzue? Eraginik izan du?
Horrelako gauzak ez dira inoiz ondo hartzen. Carlosek utzi izana mingarriena izan zen, agian, jatorrizko taldeko kidea zelako. Haren ordez ez dugu aukeratu zeharkako flauta jotzen duen beste inor. Flauta irlandarrak, uillean pipe —Irlandako gaita— eta Galiziako gaita jotzen dituen bat aukeratu dugu, Anton Davila.

Hala eta guztiz ere, disko berri bat prestatzen zabiltzate, ezta?
Beti esan arren, oso disko garrantzitsua izango da hori, talde berria finkatuko duelako. Prestatu ditugun hogeita hamar bat abestietatik hamazazpi aukeratu, eta horietatik gutxi gorabehera hamahiruk osatuko dute diskoa. Nahasketa dago, betiko moduan, baina sonoritate aldetik esango nuke lehenengoko diskoen antza izango duela .

Hortaz, luzaroan izango dugu Celtas, ezta?
Oraingoz jarraitzeko gogoa dugu...

Txorierriko Gazte Plana

Gazteen gabeziak mahai gainean

Txorierriko Mankomunitatea Gazte Plana egiten ari da. Plan horrek gazteen gabeziak aztertu, eta alternatibak ematea du helburu. Esther Martin proiektuaren koordinatzaileak solasean izan da aldizkari honekin.

Nola sortu da Txorierriko Gazte Plana?
Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidego osorako jorratu nahi zuen egitasmoa da Gazte Plana. Azkenean, ordea, udalerrietara eramatea erabaki zuten, udal eta gazteen arteko distantzia askoz txikiagoa delako. Txorierriko Mankomunitatea urtarrilean hasi zen proiektuarekin, eta ekainerako bukatuta egotea espero dugu.

Eta zein da proiektu horren helburua?
Planak gazteen arazoei erantzuna ematea du helburu, eurak garatzeko eta emantzipatzeko. Bost arlo aztertu dira: lana eta laneratzea; etxebizitza; hezkuntza eta prestakuntza; osasuna eta gizarte-ekintza, eta, azkenik, aisialdia, kultura eta kirola.

Planak fase bi ditu: elaborazioa eta garapena. Azaldu, mesedez, zertan datzan bakoitza.
Elaborazio faseari dagokionez, Txorierriko gazteen artean 400 inkesta zabaldu dira, euren perfilak, gustuak, kezkak, egoera eta beste kontu batzuk ezagutzeko. Besteak beste, ondorengo hauei buruz galdetu zaie: ikasketak, politika, erabiltzen dituzten zerbitzuak… Inkestak kalean egin dira, baina gazte batzuek proiektuan parte hartzeko eskatu dute, eta haiei ere bidali zaie galdetegia. Inkestatuak 14 eta 30 urte bitarteko gazteak dira.
Beste alde batetik, hogeita hamar profesionali ere —teknikariak, animatzaile soziokulturalak, elkarteetako kideak…— egin zaie inkesta, gazteei zuzendutako zerbitzuak eta ekintzak baloratzeko.

Inkestez gainera, foro bat ere zabaldu da Interneten…
Bai. Helbidea www.e-txorierri.com/modules.php?name=Forums da, eta bertan euren iritzia eta iradokizunak emateko aukera dute gazteek.

Eta eztabaida-mahaiak osatu dira…
Zenbat arlo izan, beste horrenbeste mahai eratu dira arlo horiek aztertzeko. Txorierriko Gazte Planaren koordinatzaile politikoek eta teknikoek osatu dituzte mahaiak, baita arlo horietako profesionalek ere. Eztabaida-mahai horietan gazteen eskaerak eta haiei zuzendutako zerbitzuak izan dira aztergai. Txorierriko gazteen gabeziak zeintzuk diren ikusita, diagnostiko bat egin eta hainbat alternatiba eta konponbide emango dira. Bileren aktak idatzi dira eta nahi duenak kontsulta ditzake. Dena dela, txorierritar guztiei zabalduko zaie informazioa.

Diagnostikoa egin ondoren, bigarren faseari ekingo zaio, hau da, garapen faseari. Gazteen gabeziak osatzen saiatuko da ala orrietan geldituko dira proposamenak?
Ba, horretarako egiten da Gazte Plana, hau da, gabezia horiek osatzeko. Baina, noski, herri bakoitzak egoera desberdina dauka, eta proposamenak aztertu beharko dira: batzuk epe laburrean egin ahalko dira eta beste batzuk epe luzean.

Abdelmajed Ghebbounek

“Hemengo eta hango gazteak ez gara hain ezbardinak”

Abdelmajed Ghebbounek 4 urte eskas daroa gure artean. Bereber etniakoa da, ez arabiarra. Hori argi itxiteko eskatu deusku, jendeak, orokorrean, ez dakialako eta zaku berean sartzen dabezalako. Moroen zakua. Orain dala lau urte inguru urten eban bere herritik bizimodu hobea lortu gurean, askoren moduan ipar zoragarrirantza. Kcartorog jaioterritik Bilbora aste pare baten heldu zan, Gibraltarreko zoritxarreko muga itsasontzi dotore baten gurutzatuz, baina txartela ordaindu barik (benetan, holan izan zan). Ez daki zelan baina Bizkaira ailegatu zan, Deriora, eta bertotik ibili da azken hiru-lau urteotan.

Testua eta argazkia: Fernando Larrondo

Esan deuskuzunez, gero eta morriña gitxiago daukazu zure herrira itzultzeko.

Egia da, hemen lana eta bizimodu hobea daukat. Ganera, orain dala urtebete Marokora joan nintzan oporrak pasatzera, eta bueltatu nintzanetik ez dot euki halango sentimendurik. Hango bizimodua oso gogorra da, diktadura gogor bat jasaten dogu eta horrek miseria eta emigrazinoa dakarz. Erregimenaren aldeko gitxiengo bat bizi da ezin hobeto, baina ganontzekoontzako urtenbideak urriak dira. Oso erraza da hemendik berba egitea, moroez eta etorkinez inguratuta bizi garela esatea, baina hango bizi-baldintzak ezetuko bazenduez, zeuok be gauza bera egingo zeunkie. Ez da bape samurra han bizitzea. Miseria eta jazarpen politikoa, cocktail ederra benetan.

Ganera, zu ez zara arabiarra, bereber etniakoa baizik. Horrek be eukiko dauz bere ondorioak.

Bai, holan da. Bereber etniakook Magreb osoan gagoz sakabanaturik, ez Marokon bakarrik. Bereber jatorriko poblazioa handia da, baina, zoritxarrez, boterea dabenak arabiarrak dira edo bereber izanik herri honen hizkuntza, kultura eta eskubide guztien zapalketan gustura jardun dira. Nik ez dakit neure hizkuntzan idazten edo irakurtzen, nire sasoiko eskoletan bereber hizkuntzan ikastea eta irakastea debekatuta egoalako. Gaur egineko eskoletan apurka-apurka sartzen doa, eta oraingo umeek gure ama-hizkuntzan alfabetatzen hasiak dira. Beharbada, Mohammed VI erregearekin ezkondu dan andrea etnia horretakoa izateak zerikusirik eukiko dau.

“Gero eta morriña gitxiago daukat nire herrira itzultzeko”

Gazterik hartu zenduan handik urtetako erabagia, ezta?

Ez pentsa, ni baino askoz be gazteagoak urteten dira. Hor daukazuz Loiuko Zentruan dagozan gazteak, asko 13 eta 16 urte bitartekoak. Neuk be emon nebazan hile batzuk Loiun. Handik urten eta Derioko baserri baten negutegietan hasi nintzan beharrean, gustura. Loiuko Zentruaz zera esan behar dot, danerik dagoala, zeozertan behar egin eta aurrera egitera etorten diranak, eta baztarrak nahasten baino ez dakienak.

Zu zeu zaitugu horren adibide argia.

Beno, baietz esango neuke. Beti ibili izan naz beharrean, han edo hemen. Ez daukat kexarik. Oraintxe, nekazaritza produktuak batu eta saltzen dituan enpresa baten nabil beharrean eta Mungiako etxe baten bizi naz. Gurago neban Derion bizi, baina ez neban topatu etxerik.Txorierri gustuko dot eta bertoko jenteagaz, normalean, ondo konpondu naz. Behin Bartzelonara joan nintzan behar egitera, baina hile bi emon eta gero ostera be etorri nintzan, kataluniarrakaz euskaldunakaz baino txarrago konpontzen nintzalako. Benetan, ni neu hobeto nago hemen, han dagoan etorkin kopurua askoz handiagoa izanik beronen inguruko giroa normalizatuagoa dala pentsatu daikegun arren.

Zelan ikusten dozu hemengo gazteria?

Bueno, danerik dago, baina orokorrean ondo. Hango eta hemengo gazteak ez gara hain ezbardinak daukaguzan gustu eta zaletasunetan. Begira, egunotan Derioko jaietan be ibili izan naz eta oso ondo pasa dot. Hemengo eta nire jaioterriko jaiak badaukie antza hainbat jardueretan. Han be kantaldiak eta tokiko dantzak eta herri kirolak egoten dira. Benetan, ez gara hain ezbardinak.

Eta amaitzeko, horra hor Abdelmajedek eskeini deuskun mezua: “Tamazegt datale”.

“Gauzak bideratzeko orduan euskaldunok ere badogu gure estilotxua”

Arantza emakume gaztea dogu, baina hala ere badau esperientzia politikagintzan, bai zinegotzi moduan eta baita Eusko Jaurlaritzaren Sailburuordetzan ere. Oraingoan, ordea, burura jo dau eta parlamentari dogu Eusko Legebiltzarrean. Egoera berri honen nondik norakoak jakiteko elkarrizketa atsegina izan dogu zamudioztarragaz.

Arantza Aurrekoetxea, EAJ–EA kolaiziotik legebiltzarkide berria

Emakumea eta politika, gatxa da zeregin biak buztartzea?

Ez dago fazil, bizimodu biak bateragarri izan daitezan neurriak hartu behar dira. Ganera, ez da bakarrik “goi-politikan” gertatzen, zeren nahiz eta zinegotzi egon edo edozein alkartetan parte hartu ardura handiak daukazuz eta dedikazioa eman behar dozu. Horrela, gura barik, ordu libreak jan egiten dira. Horregaitik lehentasunak bilatu behar dira eta gustuko daukazun hainbat gauza kendu beharra dago, gimnasiora joatea, kirolen batean aritzea… Hala eta guztiz ere, nik ez deutsat mendira joateari utzi, gustuko zer edo zer mantentzea ona da eta.

Eta aurrera egiteko laguntasuna beharko da…

Beti behar dozu laguntasuna, batez ere etxekoena eta baita eurek ulertutea ere, askotan desorduetan ibili behar da-eta. Bestalde, herri mailan ere asko egin behar da zeren eta enpresetan nahiz alkarteetan andra asko badabil ere, gero zuzendaritzan ez gagoz proportzio berean. Jarrera kontua ere bada. Izan ere, gure joera izan da holako postuetarako gizonei bidea emotea, gu atzean geldituta. Horrela bada, aurreko legegintzaldian onartu zan Berdintasunerako legea garatzea da oraingo gobernuaren eginkizuna. Dekretu zehatzen bidez neurriak hartuko dira emakumearen parte hartzea errazteko eta lan baldintzak egokitzeko, adibidez ordutegiak goizez jarriz, zeren, askotan, batzar orduak arratsaldez eta berandu izaten dira, lan ordutegitik kanpo.

“Berdintasunerako legea garatzea da oraingo gobernuaren eginkizunetako bat”

Eta badago desberdintasunik politikagintzan emakume eta gizonen artean?

Heziketa diferentea hartu dogulako gizona lehiakorragoa eta konpetitiboagoa da eta emakumea, berriz, konstanteagoa, belduerrik bakoa eta mezuak emoterakoan artezagoa. Gizonek gauza batzuei garrantzia emoten deutseen bitartean emakumeok beste batzuei emoten deutsegu. Hortik, beraz, estilo diferentea ekarriko dau emakumeak, kontuan hartuta emakumeen artean ere desberdintasunak badirela. Edozelan ere, ekarpen handia egin dau eta egingo dau emakumeak eta aldaketa egongo da eta baita igarri ere.

Zuk zeuk, zer eginkizun hartuko dozu Legebiltzarrean?

Nire ekarpena, batez ere, euskara arloan izan daiteke, hizkuntzaren normalkuntzan, baita modu transbersalean ere, hori izan baita orain arteko nire eginkizuna Eusko Jaurlaritzaren sailburuordetzan.

Euskara munduan, non dago beharrizanik gehien?

Hezkuntzan, administrazioan… dirutan eta denboratan esfortzu handia egin da administrazioaren eta partikularren aldetik. Enpresa munduan ere lan interesgarria egin da eta 100 enpresa handitan euskara plana indarrean dago, baina enpresa gehienak falta dira. Hirugarren sektorean ere lan handia egin behar da. Hau guztia aurrera eramateko plana egina dago, baina argitu behar dot plana eta neurriak bat etorri behar direla, erritmo egokiak jarriz, plan indibidualak eginez. Bestalde, langileen motibazioa ere inportantea da eta, gerora begira, neurriak hartu behar dira euskal-

Parajetik

–Izen-abizenak: Arantza Aurrekoetxea Bilbao
–Adina: 43 urte (1961)
–Jaioterria: Zamudioko Aranoltza auzoko Artatza baserrian
–Egoera zibila: Ezkondua
–Lanbidea: Euskal filologian lizentziatua
–Esperientzia politikagintzan:
-Zamudio udaleko zinegotzia.
-Eusko Jaurlaritzaren sailburuordetzan 1.996tik 2.001era, Euskara Planen zuzendari gisa. Ordutik hona sail bereko aholkulari

dundu dan langile horrek euskaraz egin dagian, erabilera plana sustatuz. Langileen ganean ezin da erantzukizuna utzi, eta euskaldundu den langileak ez badau euskaraz berba egiten erabilera plana txarto ezarrita egongo da. Beraz, neurri txiki asko hartu beharko dira, horretarako dirua eta baliabideak jarriz, eta orain arte kolektibo askorentzat soluzioa topatu da eta hemendik aurrera ere topatu beharko da, beti ere helburuen kontra joan barik.

Kataluniatik zer edo zer kopiatu behar ote dogu?

Neure mailatik egiten dot berba, baina uste dot haiek kopiatu deuskuela batez ere; haatik formak eta manerak kopiatuko neukez, edukietan aurretik goaz-eta. Bestalde, gauzak bideratzeko orduan guk geuk ere badogu gure estilotxoa.

Hizkuntzari jagokonez, berriz, hizkuntzen arteko distantzia linguistikoa oso desberdina da, hau da, katalanak edo euskarak gaztelaniarekiko dauken distantzia, ulermen maila askoz errazago baita eurentzat. Ez da, beraz, askotan esaten den moduan, fideltasun falta. Egindako inkesta guztietan euskalduna euskararekiko oso fidela dela agertu da behin eta berriro. Baina baldintza objektiboak behar dira; hau da, euskaraz egiteko kapaz izatea eta nogaz egitea eukitea.

Zertan lotuko da Ibarretxe–plana?

Legebiltzarraren plana esan beharko geunke, Legebiltzarrarena baita. Arlo honetan estatutu berriaren alde jokatu dogunok indartuta atera garela uste dot nik. Orain arte egoan blokeoa gainditzeko balio izan dau eta lehendakaria gai izan da soluzio bat mahairatzeko, eta ekimen horretan bera izan da gidari. Beraz, ez dakit zer aterako dan, negoziatu egin beharko da-eta, baina hemendik aurrera ere plana erreferentea izango da.

Emakumeak ekarpen handia egin eta egingo deutso politikagintzari, Arantzaren ustetan

"Ibarretxe–plana hemendik aurrera ere erreferentea izango da"

Errazago Madrileko PSErekin PPrekin baino?

Nik azpimarratuko neuke oraingoak, gutxienez, berba egiteko prest dagozela, eta Juan Jose Ibarretxek Madrilen plana defendatu ahal izanak beste talante bat, beste egikera bat, erakusten dauela; aurreko agintaldian blokeo hutsa izan zan-eta.

Gainera, espero dot agintaldi honetan errespetua eukitea Legebiltzarrari eta, beraz, jendeak gura eta aukeratu dauenari.

Baina askotan zenbait komunikabidek esandakoak oihartzun handiagoa dauka Legebiltzarrean erabakitakoak baino. Benetako eztabaida tertulia dala emoten dau…

Bai, lar erraz egiten da berba, askotan lar arrazoitu barik. Gehienetan tertulia sistema ez da adituen eztabaida; formatua bera ez da batere ona. Audientzia, eskandalua… bilatu egiten da zenbaitetan, zorroztasun gutxirekin. Eta komunikabideen papera oso garrantzitsua da, baina kode etiko falta egoten da batzuetan.

Baketze agintaldia izango da honako hau?

Bakea sentitu egiten dogu azken denbora honetan. Bakearen aldeko eritxia zabaldu egin da, horren beharrizana kalean dago eta gaur egun tratatu egiten da hankak lurrean jarrita. Gaia mahai gainean dago alderdi desberdinen artean, eta berba egiteko prest egoteak lau urte honetan bakea lortzea posible dala esan gura dau.

Azkenik, Txorierrira begira zer esan zeinke?

Txorierrik aukera politak daukaz, arlo sozio-ekonomikoan ere indar handikoa da eta ingurune bizia dogu. Euskaran ere erreferentzia izan behar dogu zeren Txorierrin egiten danak eragin handia eukiko baitu hemendik kanpo ere. Bestalde, kontuan hartu behar dogu Bilbo inguruan dogula eta gugan ere eragin handia dauela eta eukiko dauela. Proiektu asko etor liteke.

“Ahalik eta ondoen defendatuko dugu herriaren ahotsa”

Ez dauka eskarmenturik politika arloan, hala ere, bere eginkizuna ausardiaz beteko duela ziurtatu digu. Lezamarrak eta alderdikideek hankaz gora jarri dute Eusko Legebiltzarra.

Maite Aranburu, EHAK alderditik legebiltzarkidea

Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunista duela hiru urte osatu zen; hala ere, orain arte ez dugu zuen berririk izan. Zergatik aukeratu duzue momentu hau hauteskundeetan aurkezteko?

Hauteskundeak frogatzat hartzeko asmoa geneukan hasiera batean: publikoki geure burua aurkeztu, gureganako jendearen jarrera ikusi eta guk ere geure burua ebaluatu. Baina asmo hutsean gelditu zen hasierako ideia hori. Apirileko hauteskundeen inguruan gertatu denak bizi dugun egoera antidemokratikoa jartzen du agerian, izan ere, bertan parte hartu nahi zuten eragile bi izan ziren ilegalizatuak. Eta horren aurrean, iritzi kritikoa eta salaketa politikoa behar-beharrezkoak badira ere, egoerak harago joateko eskatzen duela argi dauka EHAK-k: ausartagoak izateko eta guztiontzako ezinbestekoak diren gutxieneko demokratikoen alde egiteko, bakoitzak bereari begiratzen aritu baino. Hori dela eta, Aukera Guztiak alderdiaren ilegalizazioen aurka pausu tinkoak emateko proposamena onartu, eta hauteskundeak demokrazia eta bakearen baitan burutzea erabaki genuen.

PPkoen ustez, Batasunaren zerrenda zuria zarete…

Ez gara PPkoek guri buruz esaten dituzten iruzurren gainean aritu, eta ez dugu egingo. Esango dudan gauza bakarra hauxe da: itzelezko presio politiko eta mediatikoa jaso dugu hauteskunde hauetan eta hori PPri eskertu behar diogu neurri batean.

Bederatzi eserleku lortu dituzue. Espero

Parajetik

–Izen-abizenak: Maite Aranburu Olabarrieta
–Adina: 28 urte
–Lanbidea: Kazetaria
–Lana: Europa Press agentzian, Aikor! aldizkarian eta LAB sindikatuan

Nola ailegatu zara politika mundura?

Nire inguruan ikusten nituen injustiziak salatzeko nolabaiteko gogoa sentitu dut betidanik. Sindikalgintzaren munduan sartu ondoren, arazoak beste neurri zabalago batean ezagutzen hasi nintzen, baita gai sozialetan gehiago inplikatzen ere. EHAK-ko kide bat ezagutu geroago… eta hemen nago!

Inbestigatu zaituzte zu, baita zure familia eta lagunak ere. Beldurrik?

Oso lasai nago, badakidalako ez dudala ezer txarrik egin. Kontzientzia oso garbi daukat eta ez naiz beldur. Etxekoak, berriz, apur bat larrituago daude eurak ere momentuaren batean inbestigatu dituztelako, ziur asko. Baina etxekoei eta maite nautenei lasai egoteko esaten diet beti. Egiten ari garen lana oso garrantzitsua eta ausarta dela eta historikoa ere izatea balitekeela. Hala eta guztiz ere, sinestezina da ustezko demokrazia honetan jarraitua, akosatua eta iraindua izatea, ideiak batzuk defendatzeagatik.

Inoiz pentsatu zenuen Eusko Lege-biltzarrera ailegatzea? Nola aldatu da zure eguneroko bizitza?

Egia esan, ez nuen inola ere espero legebiltzarkide izango nintzela duela pare bat hilabete. Gainera, ez naiz Legebiltzarrean dauden beste askoren modukoa: ez naiz politikari profesionala. Politika ikuspegi zabalago batetik ikusten dut, hau da, herria egiteko eta herriaren interesak defendatzeko tresna bezala. Eta goitik behera aldatu da nire bizitza eta nire inguru-koena ere bai. Geroari begira neuzkan planak atzeratu beharko ditut apur bat, baina Parlamentura joan eta buru belarri lanean hasteko ilusio handia daukat.

Zein da zure etorkizunerako nahia?

Egiten ari garen lan neketsu eta gogor honek noizbait -laster batean- fruituak ematea.

zenuten hain emaitza onak izatea?

Oso emaitza garrantzitsuak lortu ditugu, egia esan. Hautagaiak Hauteskunde Batzordean aurkeztu genituenean ez genuen inondik inora horrelako emaitzarik espero, baina hauteskunde hauek ez direla edonolakoak izan argi dago. Bederatzi legebiltzarkide izateak herriaren parte handi batek bozkatu gaituela suposatzen du, eta errespontsabilitatea ere badakar. Are gehiago esango dut: boto eskubidea galerazita eduki duen herriaren parte handi batek botoa eman ahal izan du aurtengo hauteskundeetan, eta hori da gure errespontsabilitaterik handiena.

Lortu dituzuen boto gehienak ezker abertzaletik datoz. Zein izango da zuen presentzia Legebiltzarrean eta zein Batasunarena… edo ezker abertzalearena?

Guk gure eserlekuak beteko ditugu eta Legebiltzarreko parte aktiboa izango gara egunez egun. Batasunak Legebiltzarrean momentu honetan eserlekurik betetzen ez duen arren, herriaren eragile politiko legitimoa eta garrantzitsua da. Beraz, ezinbestekoa da bere presentzia Legebiltzarrean zein beste instituzio batzuetan.

Legez kanpo jartzeko arriskuan zaudete oraindik…

Uf! Fase horretatik haratago gaude. Ez dugu ilegalizazioaren beldurrik, jakin badakigulako alderdi legala garela. Eta horrelakorik berriro ez errepikatzeko, mundu guztiaren eskubide zibil eta politikoak errespetatuak izan daitezen lan egingo dugu. Lanean hasteko gogoa daukagu.

Zeren alde lan egingo du EHAK-k Legebiltzarrean?

Gatazkaren konponbidearen alde. Gure helburua Parlamentu demokratikoa eta bakean bizi daiteken herri bat lortzea dela esan dugu kanpainaren hasieratik. Eta horretarako beharrezkotzat jotzen dugula eragile guztiak –politikoak, sozialak, sindikalak…- batzea mahai baten inguruan, inolako esklusio barik.

Bakean bizi daiteken herri bat lortzea du helburu EHAK-k

"Ez dugu ilegalizazioaren beldurrik, jakin badakigulako alderdi legala garela"

"Bake prozesua burutzeko egoera baikorrean gaude, baina Parlamentuan zein Parlamentutik kanpo guztiok esertzea behar-beharrezkoa da"

Urrun dago bakea?

Bake prozesua burutzeko oso egoera baikorrean gaude, nire ustez. Baina horretarako, bai Parlamentuan, bai Parlamentutik kanpo, guztiok esertzea behar-beharrezkoa dela esaten gabiltza behin eta berriro. Nazio Eztabaidaguneak planteatzen duen bidea apropostzat jotzen dugu era horretako debate baterako, baina guztiok eroso gauden marko batean izan beharko luke.

Duela gutxi Ibarretxerekin batzartu zarete. Zein baldintzatan emango zenioketen laguntza?

Berari esan bezala, egoera honen aurrean gatazkaren konponbidearen aldeko pauso sendoak emango balitu, bat egingo genuke berarekin bide horretan.

Bere plana aurrera ateratzen laguntzeko prest?

Plan pertsonalak baino, eragile guztiek bat egitea nahiago duela herriak ziur nago. Ideia alderdikariak alde batera utzi, bide ausartagoa hartu eta hitzetatik ekintzetara pasa daitezen.

EHAk-ko hiru zerrenda buruak emakumezkoak zarete. Zergatik hiru emakume?

Eta zergatik ez? Are gehiago bederatzi eserlekutik zortzi hartu ditugu emakumeok.

Zerrendak parekideak izan behar ziren lehenengo hauteskundeak izan dira aurtengoak; hala ere, Legebiltzarra osatu ondoren parekidea izaten jarraituko duen ikusi beharko da. Badakizue: dimisioak izaten dira, zerrendak atzera doaz…

Bizkaiko zerrenda-burua izateak oso errespontsabilitate handia ekarriko du…

Norbait aurkeztu behar zen, eta proposamena egin zitzaidanean onartu egin nuen. Baina, noski, egoera aldatu da eta askoz errespontsabilitate handiagoa daukat. Ausardiaz beteko dut neure eginkizuna. Pozik nago.

Lezamakoa izanda, zein ekarpena egingo dio zu Parlamentuan egoteak Txorierriri?

Legebiltzarretik egin ahal dugun guztia egingo dugu. Ezkerreko alderdia da gurea eta gai sozialak gure ardurarik handienetako bat dira. Ahalik eta ondoen defendatuko dugu herriaren ahotsa.

Asier Perez de Eulatek gerrako hobien berri eman digu

Gerrako ahaztuak

Aldizkari honek gerra denborako bost hobiren berri izan du. Asier Perez de Eulatek hobi bi erakutsi dizkio. Zamudion badira, gutxienez, beste hiru. Hobi horietan gerran hil zirenen gorpuzkinak daude. Beste herri askotan, hobietako hildakoen hezurrak eta historia berreskuratzeko lanak egin dira. Txorierrin ez da halako lanik egin, nahiz eta, Asierrek dioenez, Txorierriko mendiak eta basoak hobiz beteta dauden.

Testua eta argazkiak: Alberto Martinez de la Cuadra

Asier Perez de Eulate, Gaztelumendiko buker baten ondoan

Asier Perez de Eulateren aitita Nafarroako Eulate herrikoa zen. Gerra hasi zenean, errekete talde bat bila joan zitzaion etxera, eta haren amak eskopeta eskuan irten behar izan zuen bere semea fusila zezaten eragozteko. Asierren amamaren aita, berriz, Biana herrian harrapatu zuten, eta Iruñeko San Kristobal gotorlekuan eduki zuten preso; libre irten ondoren, herriko faxistek hil arte torturatu zuten eta, ondoren, karobi batean erre zuten. Asierrek dioenez, "beharbada, egunen batean nire birraititaren gorpuzkinak aurkituko dituzte Aranzadikoek, eta nire amama bere aitaren hiletara joan ahal izango da".

Nafarroako herriak erretagoardian zeuden, gerra-frontetik kilometro askotara; hala ere, 2.789 pertsona hil zituzten guztira. Franco hil ondoren, haien gorpuak berreskuratzeko mugimendua abiatu zen. Josu Chuecak eta Luis Fernandezek Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian liburuan kontatzen dutenez, "1976ko azarotik aurrera, zenbait herritan, exekuzioen zelaietara joaten hasi ziren herritarrak, hildakoak ateratzera. Haien gorpuak eta haien izenak berreskuratzera. Marcillan hasi ziren eta Nafarroa osoan segitu zuen mugimendu hark, 1978 arte".

Iaz Aranzadi Zientzia Elkartekoak Elgetan ibili ziren indusketa lanak egiten, eta 36ko gerran hil zituzten zortzi gudariren gorpuen aztarnak atera zituzten. Gorpuok hiru hobitan egon ziren eta herritarren eta senitartekoen testigantzak zirela medio topatu ahal izan zituzten. Lehen hobia Intxorta mendian dago eta bertan topatutako hiru gizonak obus baten leherketaren ondorioz hil ziren. Beste hobi biak baserri baten inguruan daude eta fusilatuta hil ziren hobi horietan aurkitutakoak. Elgetan bezala, Txorierrin ere egon zen gerra-frontea, eta bertoko baso eta zelaietan badira gerrako hilak gordetzen dituzten hobi asko.

"Itzelezko deskalabrua ikusi zuen bertan: dena gorpuz beteta zegoen"

Asierrek AIKOR! aldizkariari kontatu dionez, gerra amaituta bere aitita eta amama Bizkaira etorri ziren. Asierren aitaren lankide asko gudari edo miliziano ibilitakoak ziren, eta gustuko izaten zuen gerrako kontuak biltzea eta borroka tokiak bisitatzea. Sarritan bere semearekin joaten zen halako lekuetara. Asierrek zaletasun horri heldu dio orain, eta gerra denborako datuak biltzen ibiltzen da, Aranzadi elkartea bezala, hobietan lurperatutako krimenak azalera ateratzeko eta oroimen historikoa berreskuratzeko.

1937ko ekainaren 11 eta 12a

Gerra-frontea luzaro egon zen geldirik neguan, baina 1937ko udaberrian gauzak aldatu ziren. Maiatzetik ekainaren hasiera bitartean faxisten esku geratu ziren Sollube, Bizkargi eta Lemoatx. Hurrengo jomuga Burdinazko Hesia zen. "Ekainaren lehenengo egunetan —dio Asierrek—, gerra-frontea Fikan eta Gamizen zegoen.

Ez zegoen oso urrun. Bertan geratu ziren eta euri egunak igaro arte itxaron zuten, abiazioaren laguntza behar baitzuten. Eguraldi ona egin zuen lehenengo egunean erasoari ekin zioten". Egun hori ekainaren 11 izan zen.

Egun horretan eta hurrengoan gertatutakoari buruzko kronika zehatza G.L. Steerren *The Tree of Gernika* liburuan dago. Kazetari hegoafrikar honek kontatzen duenez, maiatzaren 25ean, Robert Monnier Frantziako zerbitzu sekretuko agenteak (liburuan "Jaureghuy" deitzen dio) ohartarazi zuen Burdinazko Hesiko punturik ahulenak Artebakarratik Gaztelumendira bitarteko zatian zeudela; faxisten tropak geldi egon ziren euri egun horietan, Steer kazetariak aukera izan zuen defentsa lerroaren zati hori ikusteko eta Monnierren ohartarazpenen ondoren ezer gutxi egin zela egiaztatzeko.

Ekainaren 11n, Steer Urrusti mendian zen. Goizeko 9ak ziren eta faxisten erasoa hasita zegoen. Hegazkinek eta artileriak Urkulu ingurua kiskali zuten. Eguerdi aldean hegazkinek gogor eraso zion Prieto batailoiari Astoreka inguruan. Arrastiko ordu bietan, batailoiak bere gizonetatik erdiak galduta, Aretxabalgana utzi zuten. Francoren aldekoek hura hartu eta Urkulurantz hasi ziren aurrera egiten. Bertan ziren gudariek apurka-apurka mendian behera joan behar izan zuten eta Fikako sagastietan ostendu. Azkenean, Francoren aldekoak Urkuluren jabe egin ziren. Burdinazko Hesia osatzen zuten mendiak (Urrusti, Kantoibaso, Gaztelumendi...) aurrez aurre zituzten. Gau horretan tentsioa handia zen lubakietan: denak zain zeuden biharamunean zer gertatuko zen.

Ekainaren 12an, Polizia Motorizatuko agente batek Bilboko Torrontegi hotelean hartu eta Urrusti mendira eroan zuen Steer.

Etxetik metro batzuk beherago, ezkerretik eskoatara igarotzen zen lubakia. Irudiaren erdian zulo bat zegoen eta armak gordetzen ziren bertan.

The Tree of Gernika liburuan kontatzen duenez, "Goizeko zortzietarako artileriak gogor astintzen zuen mendi bizkarra. (…). Lubakietan sartu ginen eta hegoaldeko bidea hartu genuen Kantoibasorantz. Oso txarto defendatuta zeuden. Orduantxe heltzen ari ziren metrailadore berriak. (…) Polizia Motorizatukoak porlanezko lehenengo postuan geratu ziren eta bertan lotuko zirela adierazi ziguten. Guk bataila osoa ikusi nahi genuen eta Kantoibasora heldu arte segitu genuen. Proiektilak txistuka pasatzen ziren gure buruen gainetik".

"Gudari eta errepublikanoen gorpuak lubakietan ilaran ipini eta lurra botatzen zieten gainetik"

Asierrek azaldu duenez, Gerra Zibilean ordura arte ez zen halako bonba eta artilleria erasorik ezagutu: "Goizeko 6 edo 7etatik aurrera hasi ziren hegazkinak erasotzen, eta artilleriak gogor jotzen zuen, 15 minututik 15 minutura handitzen zen kadentzia batekin; ezin jakin daiteke zein kopurutara heldu zen, baina aipatzen da, gutxienez, 25 proiektil jaurtitzen zituztela minutuko, hau da, bat segundo birik segundo bira".

"Halako batean, —segitzen du Asierrek— su gurutzatua izan zen. Bertan ez zegoen geratzerik, akabatzen ari ziren. Orduan arrapaladan ihes egin zuten. Jendea Lezama eta Zamudio aldera hasi zen jaisten, desertzio asko izan ziren. Batailoiak kuartel nagusira itzuli ziren. Gaztelumendi okupatu zenetik ez zen erresistentzia askorik egon. Hala ere, gauean Errandonearen batailoiak berriro hartu

zuen Urrusti, baina gau horretan bertan utzi behar izan zuen".

Aipatu denez, Steer Kantoibason zen, Gaztelumenditik hurhurre, beraz: "Momentu hartan, lubakiaren eskumako aldetik gizon bat heldu zen arnasa estuan. Egun hartan ikusten nuen lehenengo oficiala zen. Kaboari esan zion belarrira: "Gure atzetik hasi dira tiroka. Gaztelumendi hartu dutela esan dute.". Handik minutu batera guztiek bazekiten. "Isilik! —oihukatu zuen kaboak— Egiaztatu egin behar da". Gizon bat komunikazio lubakitik bizkarreraino igo zen, handik begiratzeko. Ez zen itzuli. Ordurako egiaztatuta geneukan egia zela. Balak tontorreko arbolen gainetik igarotzen ziren txistuka. Arerioek gure lerroak igarota zeuzkaten Gaztelumenditik. Arerioek Bizkaiko gorpu multzo batez estalita aurkitu zuten Gaztelumendi".

Asier Perez de Eulate. Atzean Gaztelumendiko monumentua.

Txorierriko hobiak

Asierrek AIKOR! aldizkariari erakutsi dio non dagoen gudarien gorpuak gordetzen dituen hobia, Gaztelumendi eta Kantoibaso artean, errepide ertzean: "Hemendik izan nintzen batean, inguru honetako baserritar bat topatu genuen eta bertan zer gertatu zen galdetu genion. Esan zigun, bera umea zela, Gaztelumendira igo zela, nazionalak sartu eta hurrengo egunean. Itzelezko deskalabrua ikusi zuen bertan: dena gorpuz beteta zegoen, gerra materiala han eta hemen jaurtita, pinu bat edo beste artean sugarretan... Hurrengo egunetan, baserritarrei laguntzeko esan zieten, gorpuak arrastaka eroateko eta lur emateko".

Zamudion beste hobi bat ezagutzen du Asierrek. Pinoatik gora dago: "Hor hiru kainoi ipini ziren, Gaztelumendi aldera tiratzen zuten, bertatik sartutako arerioak geldiarazteko. Kanoiek ke handia ateratzen zuten eta halako batean pieza horietako bat jo zuten nazionalek. Kanoia desegin zuten eta haren inguruan soldaduen gorpuak geratu ziren. Orduan, kapitainak beste kanoi bietakoei oihukatu zien: "Segi tiratzen! Segi tiratzen!". Afrikako gerretan ibilitakoa zen eta bazekien pieza bat jotzen zenean, tiratzeari uzten bazitzaion, arerioek aparatu egin zutela jakingo zutela eta gradu horietara tiratzen jarraituko zutela. Bateria apurtu zuten eta gorpuak han daude".

"Artebakarratik Gaztelumendira bitarteko defentsa lerroak puntu ahul asko zituen"

Hirugarren hobia ere Zamudion dago. Orain urte bat edo bi, Lagatzu elkarteak grabazio batzuk egin zizkien herritarrei, herriko toponimia biltzeko. Elkarrizketa horietako batean, Etxeandia baserriko andre batek hobiaren berri eman zien Lagatzuko kideei. Hobia San Migel auzoan egin zen eta Asturiasko anarkisten brigada bateko bost milizianoren gorpuzkinak daude bertan. Nazionalak Txorierrin sartu zirenean hil zituzten miliziano horiek. Talde horretako beste miliziano batzuk Dañobeitia baserrian gorde ziren zaurituta. Hildakoei basoan eman zitzaien lurra.

Beste hobi bat ere auzo horretan dago. Argiñena baserriko bizilagun batek AIKOR! aldizkariari adierazi dionez, baserria baino apur bat gorago bada arte bat, eta handik metro batzuetara bere aitak lur eman zion miliziano bati. Ez zuen jakin zein zen bere izena, baina bai barakaldarra zela.

Bosgarren hobia Iturritxualde (Avril) mendian dago, Irumugarrietako trikuharria eta tontorra bitartean. Ondoko lurren jabeak azaldu duenez, senideak urtero joaten dira loreak ipintzera.

"Nazionalek aurrera egin eta lurralde bat konkistatzen zutenean, —azaltzen du Asierrek— lur ematen zien euren hildakoei. Inoiz gertatzen zen familiak Nafarroatik edo Gaztelatik etorri eta gorpuak eskatzea, identifikazio txapen bidez jakiten baitzu-

Italiako hegazkinek jaurtitako bonba bat. Zamudioko Fuentene baserritik Granjara-ko bidegurutzera bitartean jausi zen, errepidetik metro batzuetara.

ten non zeuden lur emanda. Halakoetan, gorpuak atera eta euren herrietara eroaten zituzten. Baina gudari eta errepublikanoen gorpuekin beste era batean jokatzen zuten; pilo batean ipini eta su ematen zieten, edota lubakietan ilaran ipini eta lurra botatzen zieten gainetik."

Kasu banaka batzuetan, familiak ezkutuan ateratzen zituzten gorpuak. "Hori klandestinoa izaten zen. Batailoiko lagun batek familiari esaten bazion "Badakit zuen semea hor hobiratu zutela" edo "Zuen semea hor jausi zen", eta ondoan hobi bat bazen, hantxe bilatzen zuten. Nahiko gogorra izaten zen. Pertsona bat bilatu behar izaten zen gorpuak ateratzeko, gorpuak usteltzen hasita egoten ziren. Senidea handik hartu eta hilerrira eroaten zen".

"Arerioek Bizkaiko gorpu multzo batez estalita aurkitu zuten Gaztelumendi"

Asierrek AIKOR! aldizkariari azaldu dio zelan berreskura daitezkeen gerra-frontean hil zirenen gorpuzkinak: "Irargin ia batailoi guztien nominak gordetzen dituzte. Nominetatik jakin daiteke, gutxi gorabehera, zein egunetan hil zen. Gudari edo miliziano bat batailoi jakin batean ibili zela ezagutuz gero, batailoi hori non egon zen jakin daiteke. Jendeak izena bakarrik ematen badu, arazo handia izaten da, soldadu guztien artean bilatu behar delako. Baina afiliazioa ezagutuz gero, abertzalea, sozialista edo anarkista zela jakinez gero, akotatu egiten duzu batailoia topatu arte. Esaterako, 1937ko ekainaren 1eko nominan agertzen bada eta 15ekoan ez, posibleena da Gaztelumendin edo Artxandan hiltzea. Batailoia ezagutuz gero, eguneko parteetan edo baja parteetan bila daiteke. Nominetan askotan agertzen da hain egunetan baja izan zela. Toki zehatz-zehatza jakiten oso zaila da, baina esan daiteke 'zure aitita Gaztelumendin edo Artxandan dago'."

AIKOR! aldizkaria harremanetan jarri da Aranzadi Zientzia Elkartearekin. Pako Etxeberria mediku forentsea eta elkarte horretako kidea da eta adierazi du Txorierrin oraindino ez dutela lanik egin, baina hemen aipatutako hobiei buruzko txostena egin nahi luketela. Txorierrin hobiak ikertzeko interesa agertuko balitz, prospekzio arkeologikoa egingo lukete.

Azkenik aipatu behar da Aranzadi elkarteak Valdenocedako (Burgos) hilerrian irekitako hobi bati buruzko txostena egin zuela iaz; herri horretan kartzela bat egon zen 36ko gerraren osteko urteetan, eta preso bizkaitar batzuk hobi horretan sartu ziren. Txostenaren arabera, horietako batzuk ondorengo hauek dira: Gabriel Basterretxea Morgaetxebarria, 1940ko apirilaren 4an hila; Jose Aurrekoetxea Etxeandia, 1941eko ekainaren 19an hila, eta David Diez Ginea, 1942ko abuztuaren 7an hila.

Jai egitaraua

Ekainaren 22an
19:30etan Pentagrama akordeoi taldearen emanaldia, Kultur Etxean

Ekainaren 23an
15:00etan Haurrentzako antzerki-berbena, Traperos del río taldearen eskutik
18:00etan Txupina. Kalejira Ipar-Elaiak txistulari taldearekin
19:30ean Gorritiren behitxoak
21:30ean Txahalki jana
22:00etan Berbena Arenal taldearekin
23:00etan San Joan suak
23:45ean Berbena Arenal taldearekin

Ekainaren 24an
11:30ean Kalejira Ipar-Elaiak txistulariekin. Meza Nagusia eta Ohorezko aurreskua
13:00etan Jubilatuentzako luntxa, Nagusien etxean
16:00etan Haurrentzako parkea, zelaian
19:30ean Gorritiren behitxoak
21:00etan Tortilla txapelketa
00:00etan Kontzertua: Su Ta Gar eta Drindots

Ekainaren 25ean
11:30ean Kalejira Ipar-Elaiak txistulari taldearekin
12:00etatik 14:00ak arte eta 16:00etatik 18:30ak arte Haurrentzako parkea, zelaian
16:30ean San Joan 2005 Futbito Txapelketako 3. eta 4. postua
18:30ean Gorantzaileak taldearen dantza agerraldia
20:00etan Gizon-probak zelaian
23:00etan Suak Zaragozana pirotekniaren eskutik
23:30ean Berbena Drakkar taldearekin

Ekainaren 26ean
09:00etan Kale pintura lehiaketa
11:00etan Kalejira Ipar-Elaiak taldearekin
11:30ean Txorierriko Haurrentzako Pilota Txapelketaren azken partidak, pilotalekuan
13:00etan Gazta eta Txakolinaren dastaketa. Harrizulatzaileak
14:00etan Sukalki Txapelketa (kazolen aurkezpena)
16:00etan Mus Txapelketa, zelaian
18:00etan Dantza agerraldia
20:00etan Lazaro y la Bodeguilla del Son Kubako taldearen musika emanaldia
22:00etan Azken traka eta jaien amaiera

Sua prest!

Gero eta jai partehartzaileagoak izatea. Hori da Sondikako jai-batzordearen helbururik nagusiena. Ekainaren 22tik 26ra bitartean San Joan jaiak izango dira eta antolatuko dituzten ekitaldien berri eman digute Unai Barkina, Mikel Sarria, Edu Teran eta Alex Garrido jai batzordeko kideek eta Unai Aurrekoetxea Kultura zinegotziak. Sondikar eta txorierritar guztiak gonbidatuta daude.

"Herritar guztiei zuzendutako ekintzak egongo dira, izan ere, jaiez gozatzeko eskubidea guztiok daukagu, ezta?", azaldu diote Aikor! aldizkariari. Haurrentzako jolasak, dantza agerraldiak, berbenak, kalejirak… "Eta lehiaketak. Aurtengo jaietako ekintzarik inportanteenetariko batzuk horiek izango dira". Horrela, bada, tortilla, kale pintura, futbito, pilota, sukalki eta mus txapelketak egingo dituzte. "Eta gizon-probak ere bai! Sondikarren artean ikusmin handia sortzen dute horiek".

Suek ere lekua edukiko dute Sondikako jaietan. Zaragozana pirotekniak ikuskizuna eskainiko du ekainaren 25ean eta zoragarria izatea espero dute antolatzaileek.
Beste alde batetik, musika saioak egongo dira eta Su Ta Gar taldearen kontzertua gazte gehiago batuko duen ekitaldia izango da, ziur asko. Lazaro eta la Bodeguilla del Son taldeak Kubako erritmoz beteko du jaien amaiera. "Eskerrak eman nahi dizkiegu herriko enpresei eta lagunei, haien laguntza barik ezinezkoa izango litzatekeelako egitaraua osatzea".

Aurtengo Villa Rock musika jaialdian zale batzuekin

Su Ta Gar, Euskal musikak ozenki jo dezan!

Aurkezpenik ez dute behar. Euskal Herriko metal bandarik inportanteena da eta guk ekainaren 24an izango dugu Sondikako Jaietan. Aukera ez dugu galdu behar, izan ere talde honetako diskoak potenteak badira, askoz gehiago bere kontzertuak. Merkatuan hamaika lana izanda, errepasoa egingo diete haien kantu gogorrei. Nor aspertzen da Jo ta ke, Mari, Haika mutil edota Itsasoz beteriko mugetan abestiak entzuteaz?

Txahal errea San Joan gauean

Udako solstizioarekin batera, San Joan gaua izaten da ekainaren 23an. Gau magikoa da hori: suak piztu eta salto egiten da haien gainetik, hau da, aspaldiko kontuak erre, eta etapa berri batera pasatzen da.

Sondikoztarrek ere badute era berezia jai hori ospatzeko. Udaletxe eta pilotalekuaren arteko landan bildu, eta Gora San Juan himnoa abesten dute suaren inguruan, Pentagrama akordeoi taldeak la-gunduta: “Gora beti ta beti. Ez da inon gizonik San Joan bezain santu, goitar ta haundirik aurkitzen…”. Aurten Arenal taldeak hartuko du San Joan gaua girotzeko ardura. Eta nobedade moduan, herritarrei txahal errea partituko zaie doan. Txahalak 200 kiloko pisua izango du eta Loiutarrak elkartekoek prestatuko dute. Horretarako, hamar orduan erretzen edukiko dute okela su txikian. On egin!

Jai herrikoiak eta partehartzaileak

Hainbat saiaketaren ostean, lortu da azkenean jai-batzordea osatzea Loiun eta burubelarri ibili da San Pedro eta Santa Luzia jaiak prestatzen Udalarekin batera. Baina hori ez da aurtengo jaiek ekarriko diguten nobedade bakarra. Vicente Arteagoitia Loiuko alkateak, Etor Irazola eta Fermin Garin Kultura zinegotziek eta Ana Landa Kultura teknikariak eman dizkigute azalpenak.

"Herritarrek jaietan parte hartzea dugu helburu nagusia eta ekintza sorta zabala antolatu dugu horretarako. Lagunen artean gozatzeko ekitaldiak izango dira", aipatu diote Aikor! aldizkariari. Herri bazkaria eta afaria, Tortilla Txapelketa, koadrilen desafioa, umorezko rallya, paellak... Loiuztarrek ez dute aitzakiarik izango lagunei deitu eta jai-giroan ez murgiltzeko.

Kirolak ere lekua edukiko du aurtengo jaietan. Horrela, bada, Pala-goma partidak egingo dira eta umeei zuzendutako herri kirolen erakustaldia izango da Leioako Eskolaren eta Mugarza anaien eskutik. Horrezaz gainera, Loiuko San Pedro I. Xake Txapelketa antolatu da eta Udal Tailerreko gaztetxoek parte hartuko dute bertan.

Eta parrandan ibiltzeko gogorik? Ba, Loiuko jaietan edukiko duzu aukera, izan ere hainbat berbena eta kontzertu antolatu dituzte: Egan Berri, Drindots, Korrontzi, Los Moñas, Urgabe...

Beste alde batetik, ohiko ekitaldiak ere topatuko ditugu –antzerkia, dantzen agerraldia, kalejira, buruhandiak, saiheski jana, haurrentzako jolasak,...- eta Txori kantari Txapelketa eta antzinako autoen erakustaldia izango dira nobedadeen artean. Asier Bilbao transformistaren showak amaiera emango die jaiei. Aspertzeko unerik ez dugu edukiko Loiun, beraz.



Antzinako autoen erakustaldia

Ekainaren 26an antzinako autoen erakustaldia izango da Abadetxe kalean, goizeko 12etatik aurrera. Erakustaldia Euskadiko Auto Klasikoen Elkarteak antolatu eta Loiuko Udalak eta Boni Prieto Volvo eta Land Rover kontzesionarioak babesten dute.

Antolatzaileek hogeita bost bat auto biltzea espero dute, eta Ferrari, Porsche, Jaguar eta Roll Royce marketako antzinako kotxeak izango dira haien artean, besteak beste. Auto horiek ibilbidea egingo dute herriko kaleetatik.

Paella Txapelketa nobedadea jaietan

Uztailaren 2an, Loiuko Jaiak I. Paella Txapelketa egingo da padel eta tenis-pisten ondoko zelaian. Herriko lehenengo lehiaketa gastronomikoa izango da hori, eta zerbait erakargarria antolatzea pentsatu du jai batzordeak. "Sukalkia, Tortilla Txapelketa eta abarrekoak egiten dira Txorierrin, baina arrozarekin ez gara ausartu orain arte". Lehiaketa prestatzeko, laguntza eskatu diote Getxoko Itsas-Argia elkarteari, izan ere getxotarrek hainbat eta hainbat urte daramatzate Aixerrotako Paella Txapelketa antolatzen. "Antolaketan laguntzeaz gainera, azpiegiturarako gauza batzuk utzi dizkigute. Eta lehiakide moduan ere hartuko dute parte txapelketan".

Zelaian 3 x 6ko 45 txosna txiki jarriko dira, koadrila bakoitzak lasai presta dezan paella. "SOS enpresak 100 kilo arroz eman digu eta arroz hori erabiliko dute partehartzaile guztiek. Osterantzean, nahi duten moduan egin dezakete, hau da, itsaskia, okela edo barazkiak erabilita". Ostalaritza munduko profesionalek osatuko dute epaimahaia.

Jai egitaraua

Ekainaren 23a, osteguna
20:00etan San Joan suak

Ekainaren 25a, larunbata
Jubilatuen Eguna, Gure Etxea elkarteak antolatuta
09:00etatik 12:30ak arte Txori kantari Txapelketa, Udaletxe ondoko landetan
14:30ean Herri bazkaria, frontoian
18:00etan Erromeria Txinparta taldearekin

Ekainaren 26a, igandea
10:00etan Loiuko San Pedro I. Xake Txapelketa. Kategoriak: benjaminak, kimuak eta haurrak
12:00etan Antzinako autoen erakustaldia, Abadetxe kalean

Ekainaren 27a, astelehena
22:00etan Berbena Egan Berri taldearekin, txosnak antolatuta

Ekainaren 29a, asteazkena
19:30ean Koadrilen jaitsiera Landatxueta kaletik, fanfarreak girotuta
20:00etan Pregoia
20:15ean Loiuko Jaiak I. Tortilla Txapelketarako izen-emateak
21:30ean Tortillen aurkezpena
22:30ean Berbena Drindots taldearekin

Ekainaren 30a, osteguna
10:00etan Kalejira
12:00etan Meza
13:00etan Ertzaintzako Musika Bandaren kontzertua
17:30ean Pailazoak. *Alaitsu* lana Azkona taldearen eskutik
19:00etan Pala-goma Txapelketaren finala
19.30ean Koadrilen arteko herri kirolen desafioa. Mozorrotuta
20:30ean Herri afaria, txosnan (Helduek: 12 €; 10 urtetik beherako umeek: 10 €. Izena ematea: ekainaren 23tik 28ra bitartean txosnan)
22:00etan Berbena Lisker taldearekin

Uztailaren 1a, ostirala
10:00etan Kalejira
11:00etan Umeentzako ohiko jolasak
17:30ean Sun magoaren emanaldia
18:00etan II. Pala-goma Txapelketaren final aurrekoak
18:30ean Umorezko rallya
20:00etan El pisito kale-antzezlana Trapu Zaharrak taldearen eskutik
21:00etan Saiheski jana
22:30ean Kontzertuak: Korrontzi, Los Moñas eta Urgabe
00:00etatik 03:00etara bitartean Chill-out karpa: emandako drogak ikertu eta horiei buruzko informazioa emango zaio emaileari tokian bertan, Ai Laket elkartearen eskutik
03:00etan Diskoteka

Uztailaren 2a, larunbata
10:00etan Kalejira. Loiuko Jaiak I. Paella Txapelketarako izen-emateak
12:00etan XV. Haurren pintura Txapelketa
14:00etan Paellen aurkezpena
17:00etan Gorritiren animaliak
19:00etan II. Pala-goma Txapelketaren finala
20:00etan Haurrentzako diskoteka
21:00etan Sardina jana
00:00etan Berbena Kresala taldearekin
03:30ean Diskoteka
04:30ean Txokolatada txosnan

Uztailaren 3a, igandea
10:00etan Kalejira
11.30ean Haurrentzako parkea
12:00etan Erraldoiak eta buruhandiak Ondalan taldearen eskutik
12:30ean Meza
13:30ean Dantzen agerraldia LEKE taldearen eskutik eta Trikitixaren emanaldia Udal Tailerreko umeen eskutik
14:00etan II. Pintxo Txapelketa
17:00etan Haurrentzako parkea
18:00etan Herri kirolen erakustaldia Leioako Eskolaren eta Mugarza anaien eskutik
21:00etan Erromeria Kiñu taldearekin
22:30ean Patxiko maskota erretzea
23:00etan Asier Bilbaoren showa
00:00etan Jaien amaiera

Apurtuarte futbol taldea

Izen indartsuko futbol taldea

Apurtuarteko zelai berria –Arteaga– obretan dago. Tribuna eta inguruak amaitu barik, basaz beterik, belar artifizialezko eremu distiratsua inguratzen. Bertan, hiru urtean modu "probisionalean" duten txabola aurrefabrikatu batean hartzen gaitu Karmele Ibarrondok. Apurtuarteko hiru zuzendaritzakoetariko bat da. Zeregin hauetan dagoen emakume bakarrenetarikoa. Apurtuarteren historia, oraina eta dituen kezkak azaldu dizkigu erandioztarrak.

Testua: Bestorrene
Argazkiak: Apurtuarte

Kontaiguzu apur bat Apurtuarteren historia.

Taldea 1926eko abuztuaren 20an sortu zen ofizialki. Garai hartako ekipoa hauxe zen: Tomas Zarra, Ungitu, Agirre, Gobian, Gonzalez, Manolin, Elorrieta, Luciano Egaña, Juan Egaña, Pedro Doñabeitia eta Ortuondo.

Leorbaso zelaian hasi ziren, gaur egun Aser enpresa dagoen inguran. 1936. urteko gerran gelditu, eta 1943. urtean agertu zen berriro taldea. Baina arazoak izan zituzten Apurtuarte izenagaz jarraitzeko eta une batzutan beste izen bat erabili zuten. Sondika eta Larrondora joaten ziren jolastera. Leorbasora 1954. urtean itzuli ziren, baina zelaia desagertu zenean Loiuko "San Jose Artesano" zelaira joan behar izan zuten. Diputazioko zelaia zen hura. Azkenik, Erandioko Landako Arteaga zelaira etorri gara 2002/2003 denboraldi hasieran.

Nahiz eta 1956/57denboraldian hirugarren mailara igo eta inoiz gorenean ere egon, Apurtuarte beti izan da erregionaleko 1 kategoriako ekipoa. Iaz oso kanpaina ona egin genuen, hirugarrenak gelditu ginen, baina lehen biak baino ez dira igotzen... Aurten ere lehenak ibili gara, hala ere, zortzigarren postuan gaude une honetan.

Zein da klubaren egoera?

Bazkideak 530 inguru gara eta ekipoa eurei esker mantentzen da. Gehienak Goikolandakoak dira. Asuakoak eta Loiukoak ere badaude, eta herritik kanpo bizitzen joan diren asko. Aspalditik ekipo bi izan ditugu: gazteena eta nagusiena. Baina gazteen taldea galdu egingo da aurten, buruko mina baino ez baitu ematen. Futbol zelai berrira etorri ginenean gazte gehiago hurbilduko zirela pentsatu genuen, baina ez da horrela gertatu. Erandioko Landako biztanleria adin handikoa da, oso gazte gutxi bizi da berton eta Astrabuduatik edo Leioatik datoz gehienak. Oso juxtu gabiltza jokalariekin... Nagusien kategorian hogeita hiru lagun dira eta entrenatzaile bi.

"Askoz baldintza hobeagoak eskaini ahal dizkiegu jokalariei orain"

Nola daramazue kluba?

Zuzendaritzako oso gutxi gaude: hiru besterik ez. Juan Ignacio lehendakaria da,ni neu idazkaria eta Iñaki Berriatua, masajista, baina zuzendaritzarekin laguntzen digu. Ez dago modurik jendea animatzeko eta lagundu dezaten. Lan handia dago: bazkideen kuotak kobratu beharra ez denean, publizitateak kobratu behar dira, bestela rifak saldu, loteria... Eta kluba hortik mantentzen da. Tristea da, baina hor gaude, ahal dugun bezala agoantatzen. Jendeak oso konpromiso gutxi hartu nahi du. Astero hiru egunetan entrenatzen da, larunbatetan partidua, igandean jubenilekin joan behar zara... Tristea da 500 bazkide inguru duen talde batek hain direktibo gutxi izatea. Nahiko genuke gu baino jende gazteagoa etortzea, gure laguntzaz apurka-apurka ikasten joan daitezen. Ostantzean ez dakigu zein izango den taldearen etorkizuna.

Beraz, arazoak nagusi.

Bai, eta arazo ekonomikoak dira nagusienak. Ekipo bi ditugu eta kontutan hartuta arbitrajeak ordaindu behar direla, kanpora goazenean garraioa eta abar, ia zazpi milioi pezetako aurrekontua dugu urtero. Bazkideen kuotetatik 1.300 euro ateratzen dira, udalak milioi bat ematen du eta gainontzekoa lortu egin behar da. Presidentearen lana da hori. Loteriari esker bizi gara urte hasieran, horretarako dendalaguntzaile asko ditugu. Eta Asuako jaiak antolatzen ditugu urtero: Apurtuarteko jaiak moduan ezagutzen dira. Klubak egiten ditu eta ez dugu beste erremediorik diru apur bat ere lortzeko. Baina antolatzeko orduan beti gaude berberak.

1927 / 28 denboraldiko argazkia

"Nahiko genuke gu baino jende gazteago etortzea eta gure lanarekin jarraitzera. Ostantzean, ez dakigu zein izango den taldearen etorkizuna"

Abuztuan taldearen 75. urteurrena ospatu zenuten. Egun polita, ezta?

Partida berezi bat jokatu genuen Loiun: Apurtuarteko jokalariak eta jokalari ohiak Txorierriko beste ekipoen jokalarien kontra. Oso ondo erantzun zuten. Ostean, jaia izan genuen Asuan, herri bazkaria, berbena... polita izan zen. Eta lan nekagarria ere izan zen, baina beno... Antolatzen egon ginen apurrak izanda, pozik gelditu ginen.

Zer moduz futbol-zelai berrian?

Arteagan hiru denboraldi daramatzagu eta lekuz aldaketak jende gehiago erakarriko zuela pentsatzen genuen, baina ez. Ekipo nagusian igarri da, eta ez jende gehiago datorrelako, baizik eta jokalari bila zoazenean baldintza hobeak eskaini ahal dizkiezulako. Gaur egun ia ez dago areadun zelairik, beraz belar artifiziala eskaini, prima txiki batzuk, arropak klubak garbitzea... Eta errazago datozkizu baldintza horiek direla-eta.

Zelan doa Txorierriko taldeen arteko lehia?

Urteetan zehar Loiu eta Apurtuarteren artean izan da pike nagusia. Baina giro ona zegoen eta jokalarien motibazioa ere handia zen. Loiuko taldea iaz igo zen eta aurten ez da enfrentamendurik egon. Beste alde batetik, Txorierriko ekipoak kategoria banatan daude eta ez dago derby askorik.

Homeopatia, zelan erabili

Aurreko hilabetean aztertu genuen bezala, homeopatia hiru printzipiotan oinarritzen da: antzekotasun fenomenoan, dosi infinitesimalen erabilpenean eta pazientearen banakotasunean. Terapeutika erreaktiboa da, organismoaren autodefentsak estimulatzen baititu, gaixotasunari aurre egiteko gorputza prestatuz.



Nola hartu

Granulu, globulu eta konprimituak mihi azpian disolbatuko dira, eta tantak eta xarabeak ere minutu batean jarriko dira mihi azpian irentsi aurretik. Komeni da otorduetatik kanpo hartzea eta bi baino gehiago hartu behar izanez gero, aldi berean ez egitea.

Erabiltzearen abantailak

Toxizitate eza
Tolerantzia ona
Medikamentu tradizionalekin guztiz bateragarria.

Medikamentu homeopatikoak mediku homeopataren preskripzioaren bidez lortuko dira farmazian. Hiru motatako medikuek lantzen dute homeopatia: unizistak, pluralistak eta konplejistak. Lehenengoak pertsona bakoitzari dagokion medikamentua topatzen saiatuko dira eta medikamentu hori baino ez diote emango. Pluralistek momentuan behar diren medikamentu unitario ezberdinak erabiliko dituzte, eta konplejistek konplexuak errezetatuko dituzte, hau da, medikamentu desberdinez egindako prestakinak.

Motak

Homeopatian era farmazeutiko ezberdinak topatzen ditugu: granuluak, globuluak, konprimituak, supositorioak, pomadak, tantak eta xarabeak. Erabilienetarikoak granuluak eta globuluak izango dira, eta unizistek eta pluralistek errezetatuko dituzte, batez ere. Laktosak eta sakarosak osatzen dute medikamentu horiek eta, horregatik, kontuan hartu beharko da pazientea diabetikoa bada edo laktosari intolerantziarik badio.

Medikamentua prestatzeko eraren arabera, hiru motatako diluzioak lor daitezke:

CH: Hahnemaniar zentesimala. Medikamentuaren parte bat alkoholaren 99 parterekin nahastuz lortuko da lehenengo diluzioa, baita hurrengoak ere.

DH: Hahnemaniar dezimala. Medikamentuaren parte bat alkoholaren 9 parterekin nahastuko da diluzioa lortzeko.

K: Korsokovianoa. CH-ren kasuan bezala, lehenengo diluzioa Medikamentuaren parte bat alkoholaren 99 parterekin nahastuz lortuko da. Ondorengoak, berriz, ur purifikatuaren 99 parterekin nahastuz.

Diluzio horiek guztiek izango dute zenbaki bat beti aurretik. Mendikamentua zenbat aldiz diluitu den adieraziko du zenbaki horrek. Erabilienak 5,7,9,15 eta 30 izango dira eta zenbat eta diluzio altuagoa izan aktibitate handiagoa izango du medikamentuak.

Nori zuzenduta

Edozein pertsonari zuzenduta egon daiteke eta norberak medikamentu homeopatikoak baino ez hartzea ala beste medikamentu tradizionalekin batera hartzea erabakitzeko aukera izango du. Aurkako efekturik edo kontraindikaziorik ez duen medikuntza denez, jaio berri, haur, edota haurdun dauden emakumeek hartu ahal izango dituzte arazorik gabe.

Alergien kasuan edota azaleko arazoetan oso erabilia da, baita arnas aparatuko arazoetan eta gripea, estresa eta antsia izan ezkero ere. Era beran, beste edozein gaixotasun sendatzeko ere erabil daiteke.

Testua: Goizeder Uria

Boga, ikasi euskara on-line

Interneten bidez euskara ikasteko sistema multimedia da Boga. Programa hori erabiltzeko, Internet konexioa eta CD batzuk izatea beharrezkoa da. Bogak euskalduntze prozesu osoa hartzen du eta bost ikastarok osatzen dute.

Ikastaro bakoitzak 15 unitate dauzka eta horietako bakoitzak 10 saio. Saiook hainbat ariketaz osatuta daude –hutsuneak bete, azpimarratu / aukeratu, bikoteak osatu…–, eta guztiak egiten dituzunean testa egingo dizu sistemak. Ariketak gainditu ezean, errepasoko saioa sortuko zaizu. Horrezaz gainera, zure neurriko saioak egiteko aukera dute irakasleek, hala iritziz gero.

Boga erabili ahal izateko, izena eman beharko duzu euskaltegi batean eta pasahitz bat eta lau CD ikastaro bakoitzeko emango zaizkizu bertan. Beraz, programaren edukia bide bitatik izango duzu: alde batetik, Interneten bidez eta beste alde batetik, CDen bidez. Ikasten ari zaren denbora guztian ezinbestekoa izango da sarera konektatuta egotea eta CDa ordenadorean sartzea. Ariketa guztiak berehala zuzentzen dira, laburpenak, idazlanak eta abarreko kontuak izan ezik. Horiek irakasleei bidaltzen zaizkie. Informazio gehi ago izateko, www.boga.habe.org web orrialdea jo dezakezu.

eke.org, euskal kulturaren ataria

www.eke.org web orrialdea sortu du Euskal Kultur Erakundeak eta euskal kulturaren eta euskararen inguruko ekitaldien berri eskaintzen dute bertan. Gunea lau hizkuntzatan egin dute –euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez–, eta euskal artistei eta kultura elkarteei esker eguneratzen da. Horrezaz gainera, atal finkoak ere baditu atariak: Euskal Herria (historia, geografia eta ekonomia), Euskara (historia, hizkuntzalaritza eta soziolinguistikari buruzko informazioa), Kultura, Ondarea, Kultura eragileak eta Euskal Kultur Erakundea (EKE zer den, funtzionamendua eta ekintzen berri).

Beste alde batetik, extranet dimentsioa ere badauka web guneak, Euskal Herriko kultura elkarteen arteko barne-komunikazioa eraginkorragoa izateko, euren egoitza edozein lurraldetan egonik ere.

Ataria euskal kultura bizi baten erakusleihoa izatea du helburu Euskal Kultur Erakundeak, baita lankidetza tresna izatea ere. Horretarako, lan egiteko moduak aldatu nahi dituzte, kultura eragileen arteko sare bat sortzen laguntzeko eta kalitatezko informazioaren hedapena segurtatzeko

Marta Izquierdo eta Agurtzane Martin, Lezamako Guraso Elkarteko kideak

“Garestia da Txorierrin musika ikastea”

Lezamako eskolako umeen gurasoak kezkatuta dabiltza musika ikasteko laguntza ezagaz. Gaia hurretik ezagutu guran, Marta Izquierdo bertako Guraso Elkarteko presidentearengana eta Agurtzane Martin kidearengana jo dau aldizkari honek.

Zein da dozuen arazoa musikeagaz?
Lehenengo eta bat, eta gaiari sustraitik helduz, klaru ikusten dogu gure seme-alabei musika irakastea oinarrizkoa dala euren formazinorako, musikea ez dala gure umeentzat gura dogun kapritxo hutsa, eta gure hezkuntza sisteman leku gehiago beharko leukela. Argi dago gure eskola erregulatu publikoan zein pribatuan —zergaitik ez dakigu baina— ez jakola kasu handirik egiten, ez bada irakasgai “maria” bezala, eta ez musika irakasleen euren erruz, profesional handiak dira eta. Musika benetan ikasi gura dauenak eskola pribatuetara jo behar dau derrigorrez, eta akademia honeek, pribatuak direnez, euren tasak kobratu behar dabez instalazino duinak euki ahal izateko eta musika irakasleei soldata duina ordaindu ahal izateko. Halanda ze, gure seme-alabentzat garrantzizkoa dana geure poltsikotik ordaindu behar dogu, adminiztrazinoaren laguntza barik.

Honen aurrean, zer egin dozue orain arte?
Arazoa urrunetik dator. Aurreko Guraso Elkarteko batzordeak planteatu eban gaia eta zeozertxo lortu be bai: Larrabetzuko musika irakasle batzuk Lezamara bertara etortzea eskolak emotera, hain zuzen be. Baina diru kontuak lehengo modura dagoz, ikasi gura dauenak, zalea dalako edo garrantzizkoa ikusten dauelako, diru mordoa itxi behar dau-eta. Eta musika ikasten ume bat baino gehiago daukiezan gurasoek... Atara kontuak!

Eta zer egiteko asmoa dozue?
Arazoa plazaratzea da gure lehenengo zeregina, jendea eta, batez be, arduradunak kontzientziatu daitezen. Jakina da beste eskualde, edo herrialde, edo erkidego edo estatu batzuetan (musika gaietan Erdialdeko eta Ekialdeko Europako estatu pribilegiatu horreetara joan barik) trataera desberdina eta maila desberdinetan emoten jakola gai honi, konparazino lotsagarriak egiteko moduan. Honen guzti honen aurrean, guk, guraso moduan eta beste guraso batzuen bozgoragailu moduan, gaia planteatu besterik ez dogu egin gura, inplikatu guztientzako errespetoz, danon artean sinfonia hau “afinatuko” dogulakoan. Hori egiteko, gure aldetik, Lezamako gaurko egoeraren argazkia ekarri dogu, berba handiekaz eta argumentu zoliekaz baino gehiago, datu zehatzakaz azaldu gura dogulako, hau da, gaur egungo musika ikasleen datuekaz eta horrek dirutan balio dauenagaz.

MAILA	ORDUAK ASTERO	LEZAMAKO IKASLEAK	€ HILERO
Hasi (Lezama)	2	22	35€
Prestakuntza (Lezaman)	2,5	7 (pianoa) 2 (bibolina)	85€
1. maila (Lezam.)	3	3 (pianoa)	130€
2. maila (Lezaman)	3	2 (pianoa) 1 (bibolina)	130€
3. maila (Lez./Larrab.)	4	1 (flauta) 1 (piano)	169€
4. maila (Lez./Larrab.)	4	1 (pianoa) 1 (klarinete) 1 (soinua)	169€
5. maila (Larrabetzun)	5	2 (pianoa) 2 (soinua)	220€
Nagusiak (Larrab.)	1	17	100€
Lezaman	1	11 (trikiti.)	39€
Zamudion	1	4 (panderoa)	24€

Testua eta argazkia: Pospolin

Zuok, irakurleok, gura badozue, bialdu zeuon ekarpenak, eritxiak eta kritikak helbide elektroniko honetara: aikormusika@yahoo.es. BELARRI ON !!!

Kadalso baserria, handikien leinua

Kadaltso baserria Zamudioko etxerik zaharrenetariko bat da. Eraikina XVI. mendean egin zuten eta bertan zituen sustraiak Jose Cadalso idazle ospetsuaren aitak.

Garai horretako beste eraikin batzuek bezala, Kadaltso baserriak oin sakona du. Bolumen paralepipedikoa du eta teilatua isuri bikoa da. Etxea bizitza bikoa da.

Ganbara bat eta solairu bi ditu: lehenengoa harlangaitzezkoa da; bigarrena, berriz, harrizkoa. Atarte zuzena du eta haren erdian toskanar koloma bat du, harrizkoa.

Zurezko habeek eta zutoinek zutik mantentzen dute etxearen egitura. Fatxada nagusiko bao guztiak zuzenak dira: bi, lehenengo solairuan, eta beste lau, bigarrenean. Goiko aldean, zulo triangeluar txikiek egurasten dute ganbara.

Atzealdeko horman, sei gezileiho edo saietera daude; guztiak, oso txikiak. Haietariko bi harrizko erdi-puntuko arkuz errematatuta daude. Hegoaldeko fatxadan bao bi ditu, eta harrizko leihoburu bat ere bai. Azken hori kortarako sarrera omen zen antzina.

Leinua

Fatxada nagusiko balkoi biren artean eta atarteko kolomaren gainean, Cadalso familiaren armarria dago. Luxurik gabeko armarria da; hala ere, nahiko apaingarria: buru biko arranoa, zilarrezko gurutzea, lau lis-lore, olatuak eta urrezko zortzi ikoroski edo sautoir. Haren azpian hurrengo inskripzio hau irakur daiteke: “Esta es la casa de Cadalso y sus armas ganadas en el año 1650”.

Cadalso familiaren sustraiak Zamudion egon arren, beste herri batzuetara ere zabaldu zen leinua. Esaterako, Jose Cadalso y Vizcarra merkataria Cadizera ezkondu zen eta bertan jaio zen bere semea: Jose Cadalso idazlea (Cádiz, 1741 – Gibraltar, 1782).

Artxiboetan agertzen den bezala, Cadalso familiak hamahiru etxe zituen Abando, Barakaldo, Loiu, Zamudio, Erandio, Fika, Lezama eta Derio elizateetan 1704an. Familiaren beste adar bat A Coruñako Noya herrian finkatu zen eta bertan Luis Cadalso y Rey de Andrade jaio zen 1843an. Hura Itsaso-Guardien Erret Konpainian sartu zen hamabost urte geroago.

Bizkaiko korrejidoreak kapare-titulua eman zion Zamudioko Juana de Cadalso y Vizcarra andreari 1719an, eta Cádizko Diego de Cadalso y Vizcarrak ere titulu hori lortu zuen 1771an.

Beste alde batetik, Juan de Cadalso Garay y Vizcarra Karlos III.aren Ordenako zalduna eta Miliziako koronela izan zen, eta Diego de Cadalsok Gernikako Batzar Nagusietan parte hartu zuen 1762tik 1764ra bitartean erregidore ganboatar moduan.

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Txokolatezko moussea

Osagaiak 6 lagunentzat:
–300 g txokolate baltz
–80 g gurin
–6 arrautza-gorringo
–6 arrautza-zuringo
–150 g azukre
–100 cl esnegain

Prestatzeko era:
Txokolatea eta gurina urtu egingo doguz maria bainuan. Gero, surtatik alboratu eta gorringoak botako deutsaguz. Aparte, zuringoak harrotuko doguz eta dana nahastuko dogu. Azkenean esnegaina be harrotuko dogu azukrea eginda, eta beste guztiagaz nahastuko dogu. Mahaira katiluetan edo atara geinke. On egin... eta ez larregi jan kalte eginenean be!

Mari Tere Onaindia

Artea Errota euskal pastela

Osagaiak:
● Bizkotxoa egiteko:
–150 g gurin
–125 g arto-irin
–150 g azukre
–3 arrautza
● Arroz-esnea: betiko erara egin eta bota hiru gelatina. Xehatu eta iragazi.
● Gaileta egiteko:
–100 g arto-irin
–100 g azukre
–100 g gurin pomadan
–100 g arrautza zuringo
● Sagarra azukre eta txakolinarekin glaseatuta
● Pastel-krema
● Idiazabal gaztaz eginiko izozkia
● Txakolin-ziropea

Prestatzeko era:
Bizkotxoa eta gaileta betiko erara prestatuko dugu, eta ondoren azaltzen den moduan muntatuko dugu:

Ontzi batean bizkotxo kapa bat zabalduko dugu. Haren gainean, sagar glasatua ipiniko dugu, pastel-kremarekin batera. Gainean, berriro ere bizkotxo kapa bat ipiniko dugu, eta gainetik arroz-esnea.

Muntatzea amaitzeko, gaileta ipiniko dugu eta gainean Idiazabal gaztaz eginiko izozki bolatxoa ezarriko dugu erdian. Pastela arto glasatuekin eta txakolin-ziropearekin zipriztinduko dugu.

(Oharra: Euskal Herriko ohiturei eusteko asmoz, bertoko osagaiak erabiliz egiten du pastel hau Artea Errota jatetxeak)

Artea Errota jatetxea Zamudion

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

NAGUSIEN SAILA
Eguzki beltzaren sekretua
Alberto Ladron Arana
Itxoidazu Café de Passy-n
Xabier Etxeberria
Hamabost zauri
Karmele Jaio
Sukar ustelaren urtea
Edorta Jiménez
Galtzea metodo kontua da
Santiago Gamboa

HAUR ETA GAZTE SAILA
Gloria mundi
Fernando Morillo
Zatoz lehenbailehen!
Enkarni Genua
Asteburu bat tren zaharrean
Jabier Muguruza
Unax eta Hodeitxu
Iñigo Muguruza
Hilerriko mamuak
Aitor Arana
Aitorrek bi ama ditu
Mª Jose Mendieta

KONTZERTUAK

3/06 Los Moñas. Durangoko Plateruena
4/06 Gatillazo. Barakaldo
10/06 Betagarri. Gallarta
10/06 Keike. Ondarru
11/06 Inoren Ero Ni. Erromo
11/06 Gatibu. Bolueta, Santana aretoan
12/06 Betagarri. Igorre
17/06 Urgabe. Igorre

DENBORA PASA

LETRAZOPA

G	B	O	E	B	F	D	I	J	E	B	N	U
E	A	G	O	F	J	G	K	B	M	G	O	H
S	R	Z	H	K	P	D	M	S	F	Y	E	I
M	A	N	T	U	L	I	Z	K	N	B	L	N
I	P	F	U	E	M	F	P	H	D	R	F	D
G	D	L	G	N	L	R	L	A	X	F	A	L
R	I	N	F	X	N	U	U	G	B	K	Z	H
A	L	G	J	E	H	S	M	A	K	M	T	J
K	R	B	H	I	L	J	O	E	M	I	R	R
Z	D	S	E	T	F	D	P	R	N	Z	A	D
I	M	G	Y	F	Z	T	T	R	Z	D	Z	P
B	S	U	L	A	Ñ	A	M	E	N	D	I	J
B	G	E	N	O	F	P	I	B	O	G	E	M

B	Z	D	K	D	J	A	G	A	E	T	R	A
N	A	Z	F	B	H	L	I	N	I	L	P	E
I	B	B	M	R	A	N	G	D	O	G	B	K
F	A	O	E	T	A	S	L	M	T	E	P	Ñ
M	L	M	L	I	M	P	O	A	B	S	N	B
Ñ	O	B	J	M	G	I	K	Z	R	H	D	I
F	E	M	P	A	L	D	L	T	A	Z	G	T
L	T	D	F	M	M	G	S	I	T	B	M	F
M	X	R	O	I	E	M	F	K	F	X	A	N
G	E	G	H	T	H	J	K	Z	N	J	M	L
B	S	E	M	N	X	B	R	U	P	B	L	S
N	J	R	L	A	K	M	X	G	L	Z	D	H
H	D	G	A	S	T	O	R	E	K	A	K	A

Aurki itzazu goiko letrazopan **Txorierriko 7 mendi izenak**. Erantzuna jakin nahi baduzu hurrengo aldizkarian agertuko da.

Ezkerraldean Aikor! 37. zenbakiaren letrazoparen erantzuna. Txorierriko 7 auzo, herri bakoitzeko bana.

Agenda

Antzerkia eta filmak

Sondika. *Pisa la raya*, Picor Teatro taldearen eskutik. Ekainaren 3an, 20:00etan, Kultur Etxean.

¡Groau!, Hika Teatro taldearen eskutik. Ekainaren 19an, 17:00etan, Kultur Etxean.

Derio. Zirika Zirkus, Tximintx elkarteak antolatuta. Ekainaren 11n, 18:30ean, kiroldegian.

Lezama. *Otiacicoh*, Oihulari Klown taldearen eskutik. Ekainaren 4an, 19:00etan, plazan.

Erakusketak

Sondika. Round Jazz, Jose Manuel Hormaren argazkiak. Ekainaren 2tik 13ra bitartean, erakusketa aretoan.

Miradas desde el agua, Javier Balledorren argazkiak. Ekainaren 19tik 29ra bitartean, erakusketa aretoan.

Udal ikastaro eta lantegien erakusketa. Ekainaren 12an, 11:00etatik 14:00ak arte, Goronda Beko kiroldegian.

Zamudio. Begoña Irazabalen pinturak. Ekainaren 13tik 30era bitartean.

Lezama. Gimnastika erritmiko eta karate erakustaldia. Ekainaren 19an, 10.30etan, pilotalekuan.

Larrabetzu. Klima aldaketa. Ekainaren 3ra arte, 16:00etatik 20:00ak arte, kultur aretoan.

Ikastaroen argazkiak. Ekainaren 13tik 17ra bitartean, 16:00etatik 20:00ak arte, kultur aretoan.

Hitzaldiak

Sondika. Familien eguneroko gatazka txikiak konpontzea. Ekainaren 7an, 18:00etan, Kultur Etxean.

Lezama. Emakumeak eta oinordetza eskubidea: foru-zuzenbide, oinordetzak eta testamentuak, Laiak elkarteak antolatuta. Ekainaren 6an, 18:30ean, eskolan.

Ikastaroak

Lezama. Irudi pertsonalari buruzko modulua, Laiak elkarteak antolatuta. Ekainaren 8an, 18:30ean, eskolan.

Larrabetzu. Informatika ikastaroan izena emateko epea: ekainaren 10era arte.

Irteerak

Sondika. Araba Euskaraz (Amurrio). Ekainaren 19an, 8:30ean.

Derio. Euskal Eskola Publikoaren jaia (Agurain), Tximintx elkarteak antolatuta. Ekainaren 5ean, 9:30ean.

Araba Euskaraz (Amurrio), Tximintx elkarteak antolatuta. Ekainaren 19an, 9:30ean.

Zamudio. Euskal Eskola Publikoaren jaia (Agurain), ekainaren 5ean.

Urdaibai-Atxarre-Ogoño, Arroeta mendi taldeak antolatuta. Ekainaren 5ean.

Araba Euskaraz (Amurrio), ekainaren 19an.

Zamudioko ermitak, Arroeta mendi taldeak antolatuta. Ekainaren 19an.

Lezama. Euskal Eskola Publikoaren jaia (Agurain). Ekainaren 5ean, 9:00etan. Izena emateko epea: ekainaren 2ra arte.

Peña Sagra (Kantabria), Gailur taldeak antolatuta. Ekainaren 19an, 8:30ean.

Donostia, Adintsuen elkarteak antolatuta. Ekainaren 25ean.

Larrabetzu. Euskal Eskola Publikoaren jaia (Agurain). Ekainaren 5ean. Izena emateko epea: ekainaren 2ra arte.

Jaiak

Derio. San Joan suak. Ekainaren 23an.

Zamudio. Aste berdea: jolasak, tailerrak, ipuin kontalaria… Ekainaren 6tik 10era bitartean, ludotekan.

Lezama. San Joan gaua. Ekainaren 23an, 19:30ean, pilotalekuaren atzealdean.

Larrabetzu. Aste berdea: puzgarriak, tailerrak… Ekainaren 4an, 11:00etatik 14:00ak arte, Udaletxeko plazan.

San Antonio. Ekainaren 11n, 20:00etan, parrillada, eta 22:00etan, berbena, Los Charros taldearen eskutik.

Kirola

Derio. Areto Futboleko III. Maratoia. Ekainaren 10, 11 eta 12an, kiroldegian.

BTT VI. Orientazio Lasterketa. Ekainaren 25ean, 10:00etatik 14:00ak arte, apaizgaitegian.

Lezama. IX. Futbito Txapelketan izena emateko epea zabalik, liburutegian.

Musika

Lezama. Abesbatzen kontzertua. Ekainaren 11n, 20:00etan, elizan.

Musika kontzertua. Ekainaren 13an, 17:00etan, eskolan.

Udalekuak

Zamudio. Udalekuetan izena emateko epea: ekainaren 20an baino lehenago, kultura teknikariaren bulegoan.

Lezama. Udalekuetan izena emateko epea: ekainaren 1etik 10era bitartean, liburutegian.

Larrabetzu. Uda 2005eko programan izena emateko epea: ekainaren 6tik 10era bitartean.